

ALOKUTIBOTASUNA ETA TRATAMENDUAK EUSKARAZ *:
II. MARKINALDEKO KASUA

JAVIER ALBERDI LARIZGOITIA

I.—SINGULARREKO 2. PERTSONAREN TRATAMENDUAK
INGURUKO HIZKUNTZETAN

Hizkuntza erromaniko guztiek (rumanoak ezik) eta hizkuntza germaniko gehienek bi aldaera dituzte, edo izan dituzte, singularreko bigarren pertsonarentzat. Izenordain bietako bata jatorriz singularra da; bestea, ordea, pluraleko bigarren pertsonatik eratorria. Denboraren poderioz azken honek halako «maila jaso» bereganatu zuen ('pluralis reverentiae' izena eman zitzaion).

Izenordain pluralak, singular bihurtu arte, bilakabide desberdina izan zuen hizkuntza bakoitzean; aldakuntza, ostera, funtsean jatorri berekoa zen hizkuntza guztietan¹²¹.

LATINA

IV. mendearen azkenalderantz jatorriz plurala zen 'vos' izenordaina «lehian» sartu zen 'tu' izenordainarekin solaskide bakarrari hitz egiteko. Harrezkero 'tu'-ren eremua murriztuz, atzeraka joan zen, 'vos'-en erabilera berriaren eraginez: GREGORIO I (590-604) AITA SANTUA-k 'tu' erabiltzen zuen bere gutunetan aginduak emateko, edo hartzailearenganako hurkota-suna, maitasuna erakusteko; 'vos', aldiz, goragokoarenganako errespetu eta urruntasuna adierazteko. Bilakabide honetan, itxura denez, pluraltasuna en-

* Oraingo honetan argitara ematen den lan honek bi zati biltzen ditu bere baitan: lehena, euskararen tratamenduei dagokiena eta bigarrena, Markinaldeko erregistroen egoeraren eta erabileraren berri ematen duena.

Atal hau, aldizkari honen aurreko alean argitaratutako idazlanaren («Euskarazko tratamenduen ikuspegia: I. Historia apur bat») jarraipena da. Beraz, bibliografia xehetasunetarako jo bedi goraxeago aipaturiko lan horretara.

121. Zati honetarako batipat iturriok erabili ditut:

— Catalina Weinerman, «Características lingüísticas y extralingüísticas de los pronombres personales» 2. atala in *Sociolingüística de la forma pronominal*, 1976, México, Edit. Trillas. 29-45 or.

— J. Pla Cárceles, «La evolución del tratamiento "Vuestra Merced"», *Revista de Filología Española*, 10, 1923. 245-280 or.

— S. Gili Gaya, *Curso superior de sintaxis española*, 1976, Barcelona. Edit. Bibliograf. 230 or.

— R. Brown eta M. Ford, «Address in American English» *Journal of Abnormal and Social Psychology* 1961, Vol. 62, n.º 2. 375-385 or.

peradoreari zegokiokkeen haunditasunarekin lotuko zen; geroztik, erabilera hori hedatu zen, nonbait, goragoko mailakoari ere hitza zuzentzeko. Nume-roak, beraz, lehen ez zuen esanahi berri bat bereganatu du: hurkotasunik eza, urruntasuna, errespetua giza harremanetan.

FRANTSESA

XVIII.eko frantsesean, aipaturiko joera aurreruntz doa: 'tu-vous' bi-kotearen bitartez, dagoeneko, oso nabarmena da gizarte maila bereizkuntza.

'Tu'-ren erabilera goi-mailako klaseen artean oso bakana zen bitartean, behe-mailako jende xeheak barra-barra ohitzen zuen. Lehenengoan artean: senar-emazteek 'vous' zerabilten elkarrekin, haurrek 'vous' esaten zieten gurasoei, eta berauek haiei 'tu/you' (amek 'tu'), neba-arreben artean, ko-inatu-koinaten artean, aiton-amonak eta biloben artean eta, azkenik, loba eta izeko-osaben artean 'vous' erabiltzeko ohitura zegoen.

Familiatik kanpora, eta gizarte maila desberdinetako hiztunen artean bestelakoak ziren arauak: jabeek eta goi-mailakoek 'tu' esaten zieten mor-roiei, neskameei, zerbitzariak eta beheragoko jendeari; berauek haiei, or-dea, 'vous' egiten zieten.

Herriko lagun xeheek —gazteek, mutilek, morroiek, zerbitzariak, nahiz gizonezkoa izan, nahiz andrezkoa— 'tu' laua ohitzen zuten beren artean. Berdin, maila honetako senar-emazteen artean. Gaur bezalatsu, agerian dago 'tu-vous' bikotearen esanahi psikologiko eta soziologikoa: hurkotasuna-hurkotasunik eza eta gizarte maila.

INGLESA

Erdi Aroan, XII. eta XVI. mendeen artean, eta Frantziako gorteko ohi-turen eraginez, hasi ziren erabiltzen jatorriz plurala zen 'ye' errespetu edo begiramena agertzeko solaskideari. Hasiera batean —latinez eta frantsesez gertatu bezala— goi mailako klase sozialen artean sartu zen, geroago ur-teen buruan klase apalen artera igaroz.

Goi-mailako klaseen artean, 'ye' erabiltzen zuten goragokoei —errege-tasunez jantzitakoei, esaterako— zuzentzeko; haurrek gurasoei, nagusiei, Jaungoikoari eta Ama Birjinari hitz egiteko erabiltzen zuten.

Maila berekoen artean 'thou' zen ohizko tratamendua; noizean behingo 'ye'-ren erabilerak adierazten zuen hizketa-lagunaren nagusitasuna, edo go-garoko maila.

Gaur egungo ingelsean behialako 'ye' eta 'thou' bikotearen ordez 'you' bakarria dugu. Tratamendu mailaketaz jabetzeko izenordainetara barik, izen-etara, titulu-etara eta agurtzeko moduetara... jo behar dugu.

ALEMANA

Alemanak —latinak eta frantsesak bezala— hizketa-lagun bakarrari zu-zentzeko aldaera bana du tratamendu bakoitzarentzat: bat, kortesiaz hitz egiteko eta beste bat konfidantzazko tratamenduan aritzeko.

Aintzina batean 'du' zen forma bakarra. Erdi Aroan zehar, pluraleko bigarren pertsonatik hartutako 'ihr' joan zen sartuz kortesia agertzeko; XVI-XVII. mendeen bitartean singularreko 3. pertsonak bereganatu zuen haren tokia: 'er' maskulinoarentzat, 'sie' femeninoarentzat. XIX.eko iraul-tzen ondoren 'sie' gertatu zen forma bakarra gizarte edo psikologiaren alde-tiko hurkotasunik eza adierazteko.

Gaur egun, 'DU'-ren erabilera oso esparru mugatuan mugitzen da; ba-karrik erabil daiteke askatasunez arauen barruan haurrekin (eskolatu aurre-

tik), familiakoekin eta adiskide minekin hitz egiteko. Atzerritarrekin, zerbitzariekin, merkatariekin, edo hurkotasunik ez dagoen harremanetan, ordea, ez da erabiltzen.

ITALIANOA

Italianoak, pertsona bakar batekin aritzeko, 'pluralis reverentiae' ezezik, singularreko 3. pertsona ere hartu zuen. Beraz, gaur 3 aldaera ditu hizketa-lagunari erreferentzia egiteko: 'tu', 'voi', 'lei'.

XIII-XIV. mendeetako 'tu-voi' bikotea erabiltzeko arauak, latinak, frantsesak eta ingelesak zituztenen antzekoak ziren: Jaungoikoarekin, Ama Birjinarekin, aingeruekin, santuekin eta hildakoekin 'tu' ohitzen zen; goragokoekin eta gurasoekin 'voi', behegokoekin eta haurrekin 'tu'; gizonezkoek andrezkoei 'voi', azkenengook haiei 'tu'; maila berekoen artean 'tu' -inoiz edo behin 'voi'.

XV. mendearen bukaeran, 'Vostra Signoria' agertu zen, mendeen joan-etorriaz 'lei' formak ordezkatua izango zena. Singularreko 3. pertsonatik hartutako 'lei' honek XVIII. mendearen inguruan sartu zituen bere sustriak hondoraino. Gaurko italianoak, beraz, hiru aldaera ditu solaskideari zuzentzeko: 'tu' kortesiarik gabekoa, eta 'lei, voi' kortesiazkoak.

Gaurko egunean 'tu'-ren erabilera hurkotasun eta elkartasuneko harremanetara zabaldu da; 'lei' goragokoekin, azaleko harremanetan, arrotzekin, eta familiakoak edo hurkoak ez diren beste sexukoekin ohitzen da. 'Voi' zenbait lekutan' galtzeaz dago.

ESPAINIERA

Singularreko 2. pertsonaren izenordainetan gertatutako bilakabidea, italianoak izan duenaren modukoa da. Pluraleko bigarren pertsonaren 'vos' kortesiazko izenordain singular bilakatu zen.

Aintzinako garai batean 'tú' maila apaleko pertsonen artean eta behegoko mailakoei hitz egitekoa izango zen. Denbora joan ahala, kortesiazko 'vos' —hasieran erregeekin erabilia— handizkiei, goi-mailakoei zuzenduko zitzaion, haien artean ere tratamendu hori ohituko zuten.

Geroago, 'vos' klase bajearen artera hedatzerakoan, lautu, zakartu egin zen: XVI. mendearen lehen herenean, guztiz itsusitzat zuten goi-mailakoek. 'Vos' hau lautzearekin batera, kortesiazko forma berri baten premia sentitu zen: XVI. mendearen lehen herenean «vuestra merced» sartuz hasi ziren, garai bateko harako 'vos' haren hutsunea betetzeko. XVIII. mendearen lehenengo hamarkadarako 'vuesa merced' > 'usted' bilakabidea burutua zegoen.

Gaurko espainierak hiru aldaera ditu singularreko bigarren pertsonan: 'tú' eta 'vos' (berau Hego Amerikako eremu handi batean —Argentina, Uruguay, Paraguay, Ertamerikako parte bat— forma lau bakarra; beste leku batzuetan 'tú'-rekin lehia) distribuzio geografikoz banatutako forma lauak eta 'usted' kortesiazkoa.

Frantsesaren eta italianoaren 'tu', espainieraren 'tú' (eta 'vos'), alemanaren 'du', (gaurko ingelsean izena) erabiltzen dira behegoko gizarte mailakoei zuzentzeko eta maila berekoen artean halako barne hurkotasuna izanez gero. Iruntzitarra, 'vous, voi/lei, usted, sie' (eta ingelsez abizena) erabiltzen dira goragoko gizarte mailakoekin mintzatzeko eta maila berekoekin barne hurkotasunik egon ezik. Itxura denez, singularreko bigarren pertsonaren izenordainek, erreferentziatzko esanahiaz gain, badute zehazten zaila den esanahi sozial eta sikologikoa.

Bestalde, solaskideek hasieran elkarri V-V (vous-vous, usted-usted,...)

esateak maiz adierazten digu hizketa-lagunen arteko muga sikologikoa, edo bestela esanda, bakoitzaren barne gogoaren eremua itxia dagoela bestearentzat. V-V -tik T-T (tu-tu...) -rako aldakuntzak adierazten digu hurkotasuneranzko atea irekitzen dela.

Aitzitik, V-T edo T-V esateak erakusten digu hizketa-lagunen arteko gizarte-mailaren desberdintasuna. Honetatik tratamendu simetrikora igarotzea (T-V → T-T edo V-V) halako birmailaketa berri baten seinale litzateke.

II.—ALOKUTIBOTASUNA ETA TRATAMENDUAK EUSKARAZ

Euskaraz, inguruko hizkuntzetan ez bezala, tratamendu maila hizketa-lagunari datzekion izenordainean eta adizkeran ezezik, gainontzeko pertsonen adizkeretan ere iragarrita dago.

Gaurko euskaraz, aditza dela medio adierazten den alokutibotasuna, ezinbestean, aukeratutako erregistroari edo tratamendu mailari dago lotuta. Alokutibotasunaren jatorrizko zentzua ahaztuta, beste zerbait bilakatu da, beste zerbaiten agergerri bihurtu da. Bilakabide honen zergatia argitzeko diakroniara jo behar dugu.

A) Jatorria ¹²²

Lehen-euskararentzat, erregistro bakarreko sistema bat proposatuko genuke ¹²³:

Pertsona izenordainak

	1. pertsona	2. perts.	3. perts.
Sing.	NI (naiz)	HI (haiz)	/ (da)
Plur.	GU (gara)	ZU (zara)	/ (dira)

122. Diakroniari dagokion hipotesi hau SCHUCHARDT-en eta EGUSKITZA-ren azalpenak uztartuz sortu dut. (Ikus teoria hauek lehenengo atalean).

Bestelako proposamen baterako, ikus G. Rebuschi, *Structure de l'énoncé en basque*, Collection ERA 642, Numéro spécial. Paris. Laboratoire de linguistique formelle. Département de recherches linguistiques. Imprimé dans l'Atelier des Publications de Nancy II, 1982. Batipat, ikus 552-553 or.

123. Ikus R. Lafon, «Place de la 2^e personne du singulier dans la conjugaison basque» *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris*, 1959, LIV, 103-129 or. Bereziki, 124-127 or. LAFON, hain urruti joan gabe, aditz-joko alokutiboa sortua zegokeen garai batetik abiatzen da (singularreko 2. pertsonaren) tratamenduen bilakabidearen berri emateko. Bere proposamenaren arauera, —NI, HI, GU, ZU pertsona izenordain bakarrak ziren garaiean (ZU singular bihurtu aurretik)— alokutiboa *derrigorrezkoa* izango zen *hizketa-lagun bakarrari* mintzatzerakoan ('bero duk/n' esan beharko zen); berariaz baten bati zuzendu ezik edo/eta bati baino gehiagori zuzenduz gero forma absolutoak erabiliko ziren.

tik), familiakoekin eta adiskide minekin hitz egiteko. Atzerritarrekin, zerbitzariarekin, merkatariekin, edo hurkotasunik ez dagoen harremanetan, ordea, ez da erabiltzen.

ITALIANOA

Italianoak, pertsona bakar batekin aritzeko, 'pluralis reverentiae' ezezik, singularreko 3. pertsona ere hartu zuen. Beraz, gaur 3 aldaera ditu hizketa-lagunari erreferentzia egiteko: 'tu', 'voi', 'lei'.

XIII-XIV. mendeetako 'tu-voi' bikotea erabiltzeko arauak, latinak, frantsesak eta ingelesak zituztenen antzekoak ziren: Jaungoikoarekin, Ama Birjinarekin, aingeruekin, santuekin eta hildakoekin 'tu' ohitzen zen; gorago-koekin eta gurasoekin 'voi', beheragokoekin eta haurrekin 'tu'; gizonezkoek andrezkoei 'voi', azkenengook haiei 'tu'; maila berekoen artean 'tu' -inoiz edo behin 'voi'.

XV. mendearen bukaeran, 'Vostra Signoria' agertu zen, mendeen joan-etorriaz 'lei' formak ordezkatua izango zena. Singularreko 3. pertsonatik hartutako 'lei' honek XVIII. mendearen inguruan sartu zituen bere sustriak hondoraino. Gaurko italianoak, beraz, hiru aldaera ditu solaskideari zuzentzeko: 'tu' kortesiarik gabekoa, eta 'lei, voi' kortesiazkoak.

Gaurko egunean 'tu'-ren erabilera hurkotasun eta elkatasuneko harremanetara zabaldu da; 'lei' goragokoekin, azaleko harremanetan, arrotzekin, eta familiakoak edo hurkoak ez diren beste sexukoekin ohitzen da. 'Voi' zenbait lekutan galtzar dago.

ESPAINIERA

Singularreko 2. pertsonaren izenordainetan gertatutako bilakabidea, italianoak izan duenaren modukoa da. Pluraleko bigarren pertsonaren 'vos' kortesiazko izenordain singular bilakatu zen.

Aintzinako garai batean 'tú' maila apaleko pertsonen artean eta beheragoko mailakoei hitz egitekoa izango zen. Denbora joan ahala, kortesiazko 'vos' —hasieran erregeekin erabilia— handizkiei, goi-mailakoei zuzenduko zitzaizkien, haien artean ere tratamendu hori ohituko zuten.

Geroago, 'vos' klase bajearen artera hedatzerakoan, lautu, zakartu egin zen: XVI. mendearen lehen herenean, guztiz itsusitza zuten goi-mailakoek. 'Vos' hau lautzarekin batera, kortesiazko forma berri baten premia sentitu zen: XVI. mendearen lehen herenean «vuestra merced» sartuz hasi ziren, garai bateko harako 'vos' haren hutsunea betetzeko. XVIII. mendearen lehenengo hamarkadarako 'vuesa merced' > 'usted' bilakabidea burutu zegoen.

Gaurko espainierak hiru aldaera ditu singularreko bigarren pertsonan: 'tú' eta 'vos' (berau Hego Amerikako eremu handi batean —Argentina, Uruguay, Paraguay, Ertamerikako parte bat— forma lau bakarra; beste leku batzuetan 'tú'-rekin lehian) distribuzio geografikoz banatutako forma lauak eta 'usted' kortesiazkoa.

Frantsesaren eta italianoaren 'tu', espainieraren 'tú' (eta 'vos'), alemanaren 'du', (gaurko ingelesean izena) erabiltzen dira beheragoko gizarte mailakoei zuzentzeko eta maila berekoen artean halako barne hurkotasuna izanez gero. Iruntzitara, 'vous, voi/lei, usted, sie' (eta ingelesez abizena) erabiltzen dira goragoko gizarte mailakoekin mintzatzeko eta maila berekoekin barne hurkotasunik egon ezik. Itxura denez, singularreko bigarren pertsonaren izenordainek, erreferentziako esanahiaz gain, badute zehazten zaila den esanahi sozial eta psikologikoa.

Bestalde, solaskideek hasieran elkarri V-V (vous-vous, usted-usted,...)

esateak maiz adierazten digu hizketa-lagunen arteko muga sikologikoa, edo bestela esanda, bakoitzaren barne gogoaren eremua itxia dagoela bestearentzat. V-V -tik T-T (tu-tu...) -rako aldakuntzak adierazten digu hurkotasunerantzko atea irekitzen dela.

Aitzitik, V-T edo T-V esateak erakusten digu hizketa-lagunen arteko gizarte-mailaren desberdintasuna. Honetatik tratamendu simetrikora igarotzea (T-V → T-T edo V-V) halako birmailaketa berri baten seinale litzateke.

II.—ALOKUTIBOTASUNA ETA TRATAMENDUAK EUSKARAZ

Euskaraz, inguruko hizkuntzetan ez bezala, tratamendu maila hizketa-lagunari datxezkion izenordainean eta adizkeran ezezik, gainontzeko pertsonen adizkeretan ere iragarrita dago.

Gaurko euskaraz, aditza dela medio adierazten den alokutibotasuna, ezinbestean, aukeratutako erregistroari edo tratamendu mailari dago lotuta. Alokutibotasunaren jatorrizko zentzua ahaztuta, beste zerbait bilakatu da, beste zerbaiten agergarri bihurtu da. Bilakabide honen zergatia argitzeko diakroniara jo behar dugu.

A) *Jatorria*¹²²

Lehen-euskararentzat, erregistro bakarreko sistema bat proposatuko genuke¹²³:

Pertsona izenordainak

	1. pertsona	2. perts.	3. perts.
Sing.	NI (naiz)	HI (haiz)	/ (da)
Plur.	GU (gara)	ZU (zara)	/ (dira)

122. Diakroniari dagokion hipotesi hau SCHUCHARDT-en eta EGUSKITZA-ren azalpenak uztartuz sortu dut. (Ikus teoria hauek lehenengo atalean).

Bestelako proposamen baterako, ikus G. Rebuschi, *Structure de l'énoncé en basque*, Collection ERA 642, Numéro spécial. Paris. Laboratoire de linguistique formelle. Département de recherches linguistiques. Imprimé dans l'Atelier des Publications de Nancy II, 1982. Batipat, ikus 552-553 or.

123. Ikus R. Lafon, «Place de la 2^e personne du singulier dans la conjugaison basque» *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris*, 1959, LIV, 103-129 or. Bereziki, 124-127 or. LAFON, hain urruti joan gabe, aditz-joko alokutiboa sortua zegokeen garai batetik abiatzen da (singularreko 2. pertsonaren) tratamenduen bilakabidearen berri emateko. Bere proposamenaren arauera, —NI, HI, GU, ZU pertsona izenordain bakarrak ziren garaiean (ZU singular bihurtu aurretik)— alokutiboa *derrigorrezkoa* izango zen *hizketa-lagun bakarrari* mintzatzerakoan ('bero duk/n' esan beharko zen); berariaz baten bati zuzendu ezik edo/eta bati baino gehiagori zuzenduz gero forma absolutoak erabiliko ziren.

Geroztik, beste hizkuntza batzuetan bezala, aktante ez den solaskideari/-ei, aditzaren bitartez erreferentzia egiteko posibilitatea sortuko zen; hots, hizketa laguna(k) hizketa-harira biltzeko, erakartzeko joera zabala agertu zen hizkuntzan:

	hizketa-lagun bakarra	hizketa-lagunak
naiz	nauk/n	nauzu ¹²⁴
da	duk/n	duzu
.....
.....

Joera biltzaile edo erakarle hau aukerakoa izango zen garai batean; hau da, artean, sistema erregistro bakarrekoa zen: 'duk/n, duzu...' adizkerak ez zuten zertan izan «lauak», zerbait izatekotan «biltzaileak» izango ziren eta neurri horretan, agian halako hurkotasuna beharrezko izango zen hiztunaren eta hizketa-lagunaren artean, baina ez bestelakorik.

Mendeak joan, mendeak etorri, inguruko hainbat hizkuntzatan bezala, 'ZU' jatorriz pluralaren singulartzea burutuko zen kortesiazko tratamendu gisa. Aldakuntza honek beste bi eragingo zituzkeen sisteman: a) pluraleko bigarren pertsonaren izenordainen eta adizkeren «berriztatzea» ('zuEK, duzu(t)E...'); b) jatorrizko 'HI' izenordainaren eta bere adizkeren lautzea.

'HI' eta bere adizkerak ('haiz, daukak/n...') lautasunezko bihurtzearekin batera, ordura arte askatasunez erabiltzen ziren adizkera biltzaileetako batzuei kutsatu zitzaizen ezinbestean lehenengoan lautasuna: 'nauk, duk, ...' aukerako adizkera biltzaileak lautu ziren orduan. Harrezkero, lautasunez jantzitako adizkerak elkar bilatuko zuten elkarrekin erabat josteraino; elkarrekin osatze edo joste hori zela medio aukerakoak izatetik derrigorrezko izatera igaro ziren behialako forma biltzaile haietako batzuk. Horra, bada, bi erregistrotako sistema berria:

124. 'nauzu' eta 'duzu' hipotetikoak jarri ditut gaurko 'nauzu(t)e' eta 'duzu(t)e' adizkeren ordez; hots, pluraleko bigarren pertsonari erreferentzia egiten diotela.

Erregistro laua	Kortesiako erreg.	Forma biltzaileak
ni nauk/n	ni naiz	nauzu, nauzu(t)e...
hi haiz	zu zara	zaitut, zaitugu...
hura duk/n	hura da	duzu, duzu(t)e...
.....
.....

Ekialdeko euskalkiek, erregistro laua eredutzat harturik sortuko zuten hirugarren bat: 'ni nauzu, zu zara, hura duzu...' zuzakako alokutiboa.

Eta mendebaldean eta hegoaldean, beste zenbait hizkuntzatan gertatu bezalaxe, singularreko 3. pertsonatik sortu zen erregistro berria: 'berori, ori da'.

B) Forma «biltzaileak» eta alokutiboak euskaraz

Duela denbora laburra, REBUSCHI-k pisuzko arrazoiekin azpimarratu du forma «biltzaile»-en eta alokutiboen arteko bereizkuntzaren premia¹²⁵.

«Gure baserritarra zintzoa duzu, hori hala da» esaldiko 'gure' ez da berez «edutezkoa» (posesiboa), 'baserritarra' esaldi horretan ez da «guk daukagun zerbait»; NOREN kasuaren bitartez hor 'GU' eta 'BASERRITARRA' elementuen arteko erlazioa adierazten da.

Forma biltzaileak (adibidez, 'duzu' goragoko esaldian) fenomeno honen kasu berezi bat lirateke; elementu bi erlazioan jartzan direneko kasu bat: 'baserritarra zintzoa da' predikatua hizketa-lagunarekiko erlazioan jarrita «baserritarra zintzoa duzu» genuke. Hots, forma biltzaileen bitartez 'predikatu estatikoa' eta 'hizketa-inguruko aktanteak' elementuen arteko erlazioa adieraziko litzateke. Esaterako, forma biltzaileak honakook lirateke:

- «txakurra hila *dugu/duzu/duzue*»
- «etxea Patxik egina *duzu/duzue*»
- «lehen esan dizut ondotxo edanak *gaituzula*»
- «etorri dena Patxi *duzu/duzue*»

Forma biltzaileak bigarren pertsonarenak eta pluraleko lehenengo pertsonarenak lirateke: honelakoetan, hizketa-laguna bildu egiten da, erakarri egiten da predikatura: «représente en quelque

125. G. Rebuschi, *Structure de l'énoncé en basque* batez ere, 590-622 or. «Autour des formes allocutives du basque» IKER I; Ikus batez ere, 312-315 or.

sorte une prise à partie ou implication de l'interlocuteur». Bereizkuntza honen alde, besteak beste, arrazoiok ematen ditu:

1.—IZAN-en alokutiboa batzuetan *EDUN aditzaren forma biltzailea bide da: *da... DUK (alokutibo eta biltzailea)*. Baina, EDUKI-ren adizkera biltzailea eta EGON-en alokutiboa ez dira inola ere berdinak: *dago... ZEGOK (alok.) / DAUKAK (biltz.)*.

2.—Forma biltzaileetan, hizketa-lagun bat baino gehiago izanez gero, pluralaren marka sartu behar da:

'etxe hori ederra *duzuE*'

Forma alokutiboak izatez hizketa-lagun bakarrari zuzentzekoak dira, beraz, ezin pluralizatu.

3.—Forma biltzaileari alokutibotasuna erantsi dakioke:

«etxe hori ederra *diagu*»¹²⁶.

D) Euskal «alokutibotasunaren» zenbait ezaugarri¹²⁷

1.—Euskaraz alokutibotasuna aditzaren bitartez adierazten da.

2.—Aditz-joko oso bat dauka euskarak alokutibotasuna adierazteko.

126. REBUSCHI-ren eritziz, 'duk' alokutiboa ('da' formarena) eta 'duk' (*EDUN aditzarena) bezalako kasuak ez dira erdizkako sinkretismo bat baizik. Tesi honen alde:

a) Lehenaldian desagertzen da sinkretismoa:

zen ZUAN (+alok) / (*EDUN) HUEN.

b) Perpauus elkartuetan IZAN aditza azaltzen da nahitaez: 'etxea ederra DUK' 'etxea ederra DELA esan diat'.

d) Galderazko perpausetan alokutiboa onartzen duten euskalkietan, 'ona duk?' galderari erantzun lekiok 'bai ona duk/da' eta 'bai, ona diat/dut'; bigarren aukerari buruz zera dio: «le verbe contient une marque d'ergatif de première personne, '-t' qui montre que le '-k' de la question a été interprété comme une marque ergatif et non allocutive. Le changement de suffixe est donc bien, inversement, le signe d'une construction (interprété comme étant) du type 'avoir'». Ikus. 621-620 or.

Hau dela eta, LAFON-en lanean aurkitu uste ditu zenbait nahaspila: 1) forma alokutiboak eta biltzaileak behar bezala ez bereiztea; 2) 'IZAN alokutiboa=*EDUN' ekuazioa.

REBUSCHI-ren ikuspuntua sinkroniarena da; baina hemen ikuskera biak —sinkroniko eta diakronikoa— elkarren osagarri gertatzen zaizkigu: besterik badirudi ere, SCHUCHARDT-en teoria ondo uztartzen da REBUSCHI-ren bereizkuntzarekin (biltzaileak/alokutiboak). Egotzitako bigarren nahasketari dagokionez, ez dut uste 'sinkretismoa'-z hitz egiterik dagoenik. REBUSCHI urrunegi doa (ikus op. cit. 636-656 or.) 'DUK' bezalako adizkera alokutiboen interpretazioa ematerakoan: '-k' datibotzat hartzeari ez deritzat bidezko.

Bestalde, esan dezagun bide batez 'a' eta 'd' argudioak balizko sinkretismo horren aurka erabil daitezkeela: a) gipuzkeraz 'UEN' agertzen da; d) 'ona duk?' galderaren bigarren ulerketak, oinarrian *EDUN aditza da-goelako ustea indartzen du.

127. LAFON-ek ematen dituen ezaugarri bereizgarriak zehazteko eta osatzeko ahaleginak egin ditut hemen. Ikus R. Lafon, *Le système...*, 497 or.

- 3.—Adizkera alokutiboak eta NORIdunak desberdinak dira.
- 4.—Hikako adizkera alokutiboetan hizketa-lagunaren sexoa iragarrita dago atzizkien bitartez.
- 5.—Euskaraz aditz-joko alokutiboak erregistro desberdinei daude loturik: beraz, haien erabilera derrigorrezko gerta daiteke aukeratutako tratamenduaren arauera.
- 6.—Bakarrizketan aditz-joko alokutiboa erabiltzeko joera dago.
- 7.—Estruktura morfologiko alokutiboak bere horretan iraun badu ere, alokutibotasunari jatorriz datxekion esanahia gaurko euskaraz ahaztuxe gelditu da.
- 8.—Oraingo aditz-joko alokutiboaren sustraian dauden forma biltzaileak lirateke gaur, esanahiari gagozkiola, inguruko hizkuntzetako erabilera alokutibo edo etikoen parekoak.

E) *Zenbait problema*

- 1) Euskaraz, 'HI' pertsonaren adizkera batzuetan —hitz egiten zaiona NORK edo NORI den guztietan— eta hikako aditz-joko alokutibo guztian zehar, atzizkien bitartez iragartzen da hizketa-lagunaren sexoa: gizonezkoa izanez gero, 'K' atzizkiaren bitartez, andrezkoa bada 'N' izan ohi da marka. LAFON-ek azpimarratu duenez, 'n'duna erabiltzen da hitz egiten zaiona andrezkoa (edo sexo horretakoa) bada, 'k'dunak, ordea, erabilera zabalagoa du:

On voit que Liçarrague traite comme masculin tout nom qui ne désigne pas una «personne» de sexe féminin. Il emploie des formes masculines non seulement lorsqu'on veut indiquer le sexe masculin de la personne à qui l'on s'adresse, mais encore lorsqu'on fait abstraction de son sexe (...).

Le même usage est suivi dans tous les textes anciens et dans la plupart des textes modernes cités plus bas¹²⁸.

Beraz, 'K'duna termino markagabea litzateke, eta bestea markaduna.

128. R. Lafon, «Remarques sur l'emploi du masculin et du féminin en Basque» *Via Domitia*, 1957, IV, 1-10 or.

Hau dela eta, LAFON-ek bere buruari galdetzen dio, hasiera-hasieratik -K/-N oposizioak sexoa bereizten ote zuen: agian aintzinako garaietan -K('t' aldaera ondoan 'tori') markak ez zuen «maskulinoa» bakarrik adierazten, agian -N ezaugarria hasieran maitasunezkoa edo ttipigarria izan zitekeen... (Ikus op. cit. 9-10 or.).

Urte batzuk geroago ez zuen zalantza izpirik jartzen oposizio honen aintzinasunaz: «Elle est certainement ancienne. Les suffixes -k (sans doute de *g) et -n ne rappellent rien d'autre dans la langue» in *Langue Basque* 1973, Bayonne, 91 or.

— Ikus L. Michelena *Fonética Histórica Vasca*, 42 or. «Masculino» y «femenino» en este contexto no intentan sugerir, claro está, que se trate de hechos que deban comprenderse dentro de lo que en sentido preciso se llama género gramatical».

Atzizkiok direla medio egiten den bereizkuntza ez da jeneroarena, *sexoarena* baizik. REBUSCHI-k zera dio honetaz:

On note en particulier qu'elle est limitée à la 2^e personne, ce qui exclut précisément que l'on puisse parler de genre (les noms ou classes nominales sont évidemment de 3^e personne), il s'agirait donc bien d'une distinction traitée de manière véritablement linguistique, puisque, on vient de le voir, l'un des termes en est marqué, et l'autre, non-marqué¹²⁹.

Gaur, lehenengo denboretan ez bezala, *sexoaren* bereizkuntza honek hizketa-lagunaren *sexoaz* gain, markatzen du erregistroaren lautasuna ere.

- 2) Sarritan esan izan da hikako adizkera alokutiboak ezin erabil daitezkeela edo ez direla erabiltzen bati baino gehiagori hitz egiten zaionean. Gehienetan horrela gertatzen omen da. Edozein modutan ere, euskalki guztietan ez da gaur erabat betetzen erregela hori. Beraz, erregela barik *joera bat* dela esan beharko genuke¹³⁰.
- 3) Euskaraz, hizkuntza gehienetan bezala, bakarrizketan nork bere buruari 'HI' egitea maiz gertatzen da. Baina harrigarriena eta aldi berean bereizgarriena, bakarrizketan aditz-joko alokutiboa sartzeko ohitura dugu.
Nork bere buruari esan diezaioke:

(a) *tontoa naiz!* (b) *tontoa haiz!* (d) *tontoa nauk!*

Posibilidadeok esplikatzeko pentsatu behar dugu ez dagoela benetako bakarrizketarik, nolabaiteko elkarrizketa bat baizik: halako alegiazko edo fikziozko elkarrizketa bat. Batzuetan fikziozko hizketa-laguna edozein, «mugatu gabea» izan daiteke (a), beste batzuetan norbera «bitan banatzen da», behin hizketa-lagunaren lekua (b), behin hizketa-lagunari hitz egiten dion hitzunaren lekua (d) hartzen duela¹³¹.

III.—EUSKALKIAK ETA ERREGISTROAK

A) Gramatikazko personak eta erreferentziazko balioak

Euskararen pertsona izenordainak honako hauek dira: 'NI': singularreko lehenengo pertsonari datzekio, hitzegiten duenak bere buruari erreferentzia egiteko erabilia.

129. G. Rebuschi, *Structure...*, 524 or.

130. Ikus *Structure de l'énoncé en basque*, 526-529 or.

131. Interpretazio honetarako, Ikus G. Rebuschi, *Structure...*, 626-632 or.

'HI, ZU' singularreko bigarren pertsonari datzekio, eta hitz egiten zaionari erreferentzia egiteko balio dute: lehenengoa laua, bigarrena kortesiazkoa¹³². Mendebaldeko euskalkiek hirugarren bat sortu dute 'BERORI', 'ZU' baino jasoagoa¹³³.

'GU' pluraleko lehenengo pertsonarena, zentzu zabalean edo metaforikoan 'NI'-ren pluralizat har litekeena: hitza duenak par-taide deneko lagun multzoari erreferentzia egiteko erabilia.

'ZUEK' pluraleko bigarren pertsonarena, zentzu metaforikoan 'ZU'-ren plurala, hitz egiten zaion lagun multzoari erreferentzia egitekoa.

Hirugarren pertsonarentzat —BENVENISTE-k «ez-pertsona» deitzen duenarentzat¹³⁴— euskara erakusleez baliatzen da ('hau(r) hori, hura' eta berauen pluralak). Erakusleok, pertsona izenordai-nek ez bezala, pertsoneri ezezik animaliei eta gauzei ere erreferen-tzia egiteko erabil daitezke.

Pertsona izenordaina, gainera, zenbaitetan garbi dago iraga-rrita aditzean:

<i>Pertsona Izenor.</i>	<i>Aurrizkia</i>	<i>Atzizkia</i>
NI	N-	nago
HI	H-(Ø,-y)	hago
ZU	Z-	-ZU zaude, duzu
GU	G-	-GU gaude, dugu
ZUEK	Z-	-ZUE zaudete, duzue

Formari gagozkiola, 'NI-HI', 'nago-hago' elkarrekin doaz, eta berebat, 'GU-ZU', 'gaude-zaude', pluralak diren aldetik elkarrekin lihoazke.

Morfologiari begira, 'ZU' eta 'zaude' pluralekoak ditugu; baina hitz egiten zaionari erreferentzia egitekoak dira, alegia, singula-rreko bigarren pertsonarenak.

132. Jakina denez, 'ZU' mugagabez deklinatzen da gaur, 'NI, HI eta GU' bezalaxe; behiala erabiliko zen pluraleko bigarren pertsonaren esana-hiaz. Geroztik, singulartu egingo zen errespetuzko esanahiaz hizketa-lagun bakarrari zuzentzeko. Guzti honen ondorioz, aintzinako 'ZU'-k utzitako hu-tsunea betetzeko pluraleko bigarren pertsonaren izenordain berri bat sor-tuko zen 'ZU' zaharra pluralizatuz. Ikus R. Lafon, «Place de la 2^e...» 103-104 or.

133. REBUSCHI-ren ustetan, sortu berria den 'BERORI' izenordaina, mailebatua balitz ere, ondo eratuta dago semantikaren ikuspegitik: hitza-ren osagaietako batek (-ORI erakusleak) —hiztuna, erreferentzia puntua delarik— hiztunaren eta hizketalagunaren arteko distantzia markatuko luke, eta beste osagaiak (BER- izenordainak) bien arteko etena —erreferentzia puntua, hiztuna izan beharrean, hizketa-laguna bera da eta—. Gramatika aldetiko eten hau linguistikatik kanpoko errespetuzko, distantziatzko harre-manari legokioke (ikus op. cit. 507-509 or.).

134. Ikus Benveniste, «La nature des pronoms» in *Problèmes de lin-guistique générale*, NRF 1964, 251-257 or.

Bestalde, 'BERORI' izenordaina 3. pertsonaren adizkerekin erabiltzen da beti: singularrean 'berori da' eta plurallean 'berok dira'¹³⁵.

Hau guztiau dela eta, aditz baten paradigma ematerakoan, komenigarri deritzagu gramatikazko pertsonak eta erreferentziazko balioak bereizteari.

'IZAN' aditza honela emango genuke¹³⁶:

	<i>Gramatikazko pertsona</i>	<i>Forma</i>	<i>Erreferentziazko pertsona</i>	<i>Pertsona Izenordaina</i>
(Sing.)	1.	naiz	I	(NI)
	2.	haiz	II	(HI)
	3.	da	II/III	{ (Erakusleak) (BERORI)
(Pl.)	1'	gara	I'	(GU)
	2'	zara	II	(ZU)
	2''	zarete	II'	(ZUEK)
	3'	dira	II'/III'	{ (Erakusleak) (BEROK)

	<i>Erreferentziazko pertsona</i>	<i>Forma</i>	<i>Gramatikazko pertsona</i>	<i>Pertsona Izenordaina</i>
(Sing.)	I	naiz	1	(NI)
	II	{ haiz zara	2	(HI)
			2'	(ZU)
	III	{ da da	3	(BERORI)
3			(Erak.)	
(Pl.)	I'	gara	1'	(GU)
	II'	{ zarete dira	2''	(ZUEK)
			3'	(BEROK)
III'	dira	3'	(Erak.)	

135. Erabilera hau BENVENISTE-ren eritziz, ondo esplikatzen da hirugarren pertsonak izenordainetan eta aditzean duen aparteko tokiagatik: «Cette position toute particulière de la 3^e personne explique quelques-uns des ses emplois particuliers dans le domaine de la «parole». (...) 'II' (ou 'elle') peut servir de forma d'allocution vis-à-vis de quelqu'un qui est présent quand on veut le soustraire à la sphère personnelle du «tu» («vous»). D'une part, en manière de révérence: c'est la forme de politesse (employée en italien, en allemand, ou dans les formes de «majesté») qui élève l'interlocuteur au-dessus de la condition de personne et de la relation d'homme à homme... Op. cit. «Structure des relations de personne dans le verbe» 231 or.

136. Ikus Rebuschi, *Structure...*, 513-514 or.

II-2/2' oposizioa ('haiz' laua/'zara' errespetuzkoa) neutralizatu egiten da pluralean ('zarete')¹³⁷.

Hizketa-lagunari erreferentzia egiteko II-2 erabiliz gero, orduan —orduan bakarrik —I-I' eta III-III' pertsonetan I-2 -ren forma alokutiboak sartu beharko dira ('nauk/n, duk/n, gaituk/n, dituk/n').

Gogora dezagun, bestalde, alokutibotasuna ez dela sartzen II-II' pertsonetan; LAFON-ek dioenez «l'opposition «indifférentes-alloctives» n'existe pas pour les formes de 2^e pers. sg. ou pl.».

LAFON-en aholkuari jarraituz¹³⁸, adizkera pertsonalak hiru klasetan sailka daitezke:

1) «Absolutoak»: I-I' eta III-III' pertsonenak (II-II' pertsonen ezaugarririk ez dutenak).

2) II-II' pertsonenak ('alokutibo/ez-alokutibo' oposiziotik at daudenak).

3) «Alokutiboak»: II-2 edo II-2' pertsonen ezaugarri bat —gramatikazko baliorik gabekoa— dutenak.

REBUSCHI-k jerarkia hau jartzen du¹³⁹:

$$I > II-3 > II-2'/2'' > II-2 > III$$

$$\text{Alegia, } P + (II) + (III) \rightarrow I$$

'ni naiz + (berori da/ hi haiz/zu zara/zuek zarete) + (hura da) → GU GARA

Erreferentziatzko lehenengo pertsonak hartzen ditu bere baitan gainerakoak.

$$II + III \rightarrow II$$

Bigarren eta hirugarren pertsonen erreferentzia egiten bazaie, bigarrenak bere baitan hartzen du hirugarrena.

$$II-3 + (II-2'/2'') + (II-2) \rightarrow II-3$$

'berori da' + (zu zara/zuek zarete) + (hi haiz) → BEROK DIRA.

137. Lafon op. cit. «Place...» 106 or.

138. R. Lafon, op. cit. «Place...» 106 or.

139. G. Rebuschi, *Structure de l'énoncé en basque*, 514-515 or.

Beraz, hizketa-lagunei tratamendu desberdinak emanaz gero, tratamendu gorenak hartzen du bere baitan besteak ¹⁴⁰.

Jerarkia honetarako derrigorrezkoa gertatzen zaigu erreferentziatzeko pertsonetan oinarritzea.

B) Mendebaldeko euskararen erregistroak

Goraxeago esan bezala, hizketa-lagunari zuzentzeko II-2 pertsona aukeratu izanak nahitaez behartzen gaitu hikako adizkera alokutiboak erabiltzera ¹⁴¹. Bestela esan, alokutibotasuna ez da sekula aukerako zerbait izaten.

Gauzak honela, «II-2 ...I,III, I', III', alokutiboak» bikoteek erregistro bat osatuko lukete, «hiketa» (edo «hitanoa») deritzan tratamenduarena, hain zuzen. Erregistro laua genuke eta honako pare honen bitartez adieraz genezake: «hi haiz ... hura duk/n».

Hurrengo erregistroa, hizketa-lagunari II-2' pertsonaren bitartez hitz egiten zaionekoa dugu: «II-2' ...I, III, I', III'». «Kortesiatzko» tratamenduari dagokion erregistroa genuke; eta «zu zara... hura da» bikotearen bitartez adieraziko dugu ¹⁴².

Hizketa-lagun batzuei zuzentzerakoan, joera izaten da II-2/II-2'

140. II-2' + II-2 ('zu zara + hi haiz') kasuan, ordea, ezin esan daiteke 'ZU'k bere baitan 'HI' biltzen duenik, pluralean II-2/II-2' oposizioa desagertzen da eta.

Joera litzateke hikako forma alokutiboak desagertzeko eta II-2' (ZUEK ZARETE)-k bilduko lituzke bere baitan aurreko biak.

Honegatik, agian hobe genuke honelako zerbait jarri:

I > II-3 > II-2'/2 > III

Honen arauera:

I + (II-3) + (II-2'/2) + (III) → I'

ni naiz + (berori da) + (zu zara/hi haiz) + hura da → GU GARA

II-3 + (II-2'/2) + (III) → II'-3

berori da + (zu zara/hi haiz) + hura da → BEROK DIRA

II-2'/2 + III → II'(-2'')

zu zara/hi haiz + hura da → ZUEK ZARETE

(zu zara + hi haiz + (hura da) → ''

141. Gogora dezagun, bestalde, alokutibotasuna ez dela sartzen a) menpeko perpausetan, hau da, baldintzazkoetan (ba-), kausaletan (bait-), erlatiboazkoetan (-n), gerundiozko eta konpletibetan (-la)... b) aginteran, este-eran (subjuntiboan) eta baldintzazko adizkeran; d) harridurazko espresioetan (maiz erlatiboaren atzizkia agertzen da eta) eta galderazko perpausetan. Labur bilduz: «L'emploi des formes allocutives est donc restreint aux propositions indépendantes ou principales où l'on affirme ou nie quelque chose, et qui n'ont pas un caractère exclamatif». R. Lafon, «Place de la 2^e...» 111 or.

142. Hemen agertzen ditudan eskemak REBUSCHI-k emandakoei lotuta daude neurri handi batean.

Ikus op. cit. *Structure*... 532, 535, 537, 540, 543-544, 459, 556, 560 or.

oposizioa desagertzeko: II'-2'/.....I, III, I', III' (-alok.). Hots, gehienetan «zuek zarete...hura da» para agertu ohi da¹⁴³.

Erregistro gorena, «errespetuzko» tratamenduarena, BERORI-keta (ORI-keta) izango genuke: II-3 (II'-3').....I, III, I', III' (-alok.). «Berori da (berok dira)...hura da».

	<i>Hizketa-lagun</i>		<i>Hizketa-lagun bat</i>	
<i>Erregistroa</i>	II = <i>bakarra</i>		II' = <i>baino gehiago</i>	<i>Erregist.</i>
« <i>laua</i> »	hi haiz — hura duk	} {	zuek zarete-hura da	« <i>laua</i> »
« <i>kortesiakoa</i> »	zu zara — hura da		(ikus. 143 oharra)	« <i>kortes.</i> »
« <i>Errespetuzkoa</i> »	berori da- hura da		berok dira- hura da	« <i>Errespetuzkoa</i> »

«Errespetuzkoa» deitu dugun erregistroa ez da zabaltzen mugaz bestaldera; baina mugaz honuntz bizi izan da Aezkoan, Zaraitzun eta Erronkarin 'ORI' aldaeraz. Zalantza daukat gaur haran horietan ere hilda ez ote dagoen. Mendebaldean ere (B,G,AN)¹⁴⁴ pentsatzekoa da hiltzear dagoela¹⁴⁵.

Beste bi erregistroak —«laua» eta «kortesiakoa»— oinarrizkoak ditugu, hots, euskararen eremu osoan zehar korritu izan dute aspaldidanik eta horrexegatik, gaurko egunean izan daitekeen ugaritasunaren sustraietan kokatu beharko genituzke¹⁴⁶.

Lapurterak (L) eta mendebaldeko baxenafarrerak (BNocc.) (mugaz bestaldekoa, noski) oinarrizko erregistro biok —laua eta kortesiakoa— baino besterik ez daukate.

Ekialderuntz erregistro-sarea nahasiago dago.

143. Zenbait herritan (Markinan, esaterako) ez diote segitzen aipaturiko joera horri, eta alokutibotasuna sartzen da hizketalagun bati baino gehiagori zuzentzerakoan (baldin hizketa-lagun guztiak «konfidantzazkoak» badira).

Beste batzuetan gerta daiteke (konfidantzazko) hizketa-lagun bakar bat egotea, baina gogoan hiztunak hizketa-lagun hori berori partaide deneko lagun multzoa izatea: holakoetan ere, «zuek zarete... ..hura duk» bikotea ager liteke. (Ikus G. Rebuschi, *Structure...* 525-526 or.

144. Azkue-k, behintzat, *M.V.*-n zabalera hori ematen dio. Ikus *M.V.* II, & 640, 432 or.

145. Gehienbat zaharrek —eta ez guztiak— eutsi diote tratamendu honi; gazteen artean eta edadekoen artean baztertuxe dago.

146. Erregistro laua galdu da zenbait herritan. Aspaldi galdua bide da Ondarrun: agian galera honek esplikatu luke gaur herri horretan BERORI-k duen bizitza ez hain meharra.

Hitanoaren lekuzko distribuzioaz eta erabileraz, ikus. P. Yrizar, *Contribución a la Dialectología de la Lengua Vasca* 1981, San Sebastián, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. 2. Liburukia, 373-480 or.

D) *Ekialdeko euskararen erregistroak*

Ekialdean II-2' pertsonari aditz-joko alokutibo bat dagokioke, ZU-kako aditz-joko alokutiboa deituko duguna (INCHAUSPE-k eta BONAPARTE-k «traitement respectueux» zeritzotena). Beraz, oinarritzko erregistroez gain hirugarren bat genuke:

«II-2'.....I, III, I', III' (zukako alokutiboak)» adizkerez osatua; hemendik aurrera, «zu zara (zira) ...hura duzu» parearen bitartez adierazita.

Are gehiago, baxenafarreraz eta zaraitzieraz laugarren bat genuke, azken horretatik erakarria palatalizazio bidez:

«xu xira ...hura duxu».

BONAPARTE-z geroztik badakigu erregistro «berriok» ekialdeko euskalkietan agertzen direna.

«Zu zara ...hura duzu» ekialdeko baxenafarreran (BNor) (Lapurdikiko Mugerre eta Hiriburu barne, eta Irisarri, Heleta, Donostiri, Izturitz, Aiherra herriek osatzen duten 'Arberoue'-ko barietatea salbu), zaraitzieran (Zar.), zuberoteran (S) eta erronkarieran (R) sartzen da. BONAPARTE-ren ustez, erregistro hau «zentzuaren aldetik» bakarrik zuberoteran litzateke benetan «respectueux»: euskalki honetan forma absolutoak erabiltzen dira bat baino gehiagorekin hitz egiteko edo/eta berariaz pertsona jakin bati mintzatu ezik; alokutiboak, aldiz, pertsona bakar bati hitza zuzentzeko erabiliko lirateke: hikakoak konfidantzakoari mintzatzeko eta zukakoak errespetuzkoari, goragokoari hitz egiteko¹⁴⁷.

Bestela gertatzen da (S)-ren inguruko euskalkietan: Mugerre-n eta Donostiri-n (Lapurdikiko (BNor)), «jeneralean» hitz egiteko edo/eta goragokoari zuzentzeko absolutoa darabilte; berdin gertatzen da erronkarieran (R), zukako alokutiboa maila berekoen ar-

147. Inchauspe-k, *Le verbe basque*-n emandako azalpen berarekin erantzuten zion Bonaparte-ren zalantzari 1858.eko gutun batean: «Il est bien certain que la forme respectueuse est plus souvent employée que la forme indéfinie, en Soule, (...) L'indéfini existe en Soule et les enfants le connaissent aussi bien que les personnes âgées; tous dans l'occasion en font usage; mais on a beaucoup plus rarement occasion de faire usage de l'indéfini que du respectueux parce que les conversations individuelles sont plus fréquentes que les paroles adressées à une multitude. Les livres basques souletins écrits en forme d'instructions tels que l'Imitation, sont écrits à l'indéfini; et tout écrit fait en forme de narration ou d'instruction doit être écrit à l'indéfini.

Je comprends très bien que si l'on demande à un paysan, comment direz-vous: un semeur alla semer? il répondra: 'ereile bat joan zuzun ereitera', parce qu'il rendra la phrase en l'adressant individuellement à son interlocuteur».

A. Irigoyen, «Cartas de Inchauspe al Príncipe Bonaparte» *Euskera* 1957, 197-198 or.

tean, santuekin eta Jainkoarekin erabiltzen delarik; (BNor)-n eta (Zar)-n ezaugarri nabarmen bat da, zukako aditz-joko alokutiboa, absolutoaren ordezt erabiltzea (absolutoa ez da bakanka baizik erabiltzen) ¹⁴⁸.

Xukako aditz-joko alokutiboa —BONAPARTE-ren informazioaren arauera— bakarrik (BNor)-en (Amikuze-ko barietatean izan ezik, eta Lapurdiko barietatea barne) eta (Zar)-en agertzen da; Arberou-ko barietatean absolutoa da nagusi, baina erabiltzen dute xukako aditz-joko alokutiboa hurrekin, neskatoekin, eta maila bereko andrekoen artean; hurrekin eta *maila berekoekin* Garazi-n, Zaraitzu-n, Lehuntze-n, Mugerre-n eta Urketa-n; bakarrik hurrekin eta neskatoekin Hiriburu-n: neskatoekin, (mutikoekin), behe-ragoko andrekoekin, maila bereko andrekoen artean (bakanka gizonezkoen artean) Beskoitze-n. Zukako aditz-joko ez-alkutiboa (xira, duxu, ...) erabiltzen da inguruko euskalkietan hurrekin hitz egiteko, eta maila berekoen artean ere Irulegi-n, Azkarate-n, Anhaue, Lasa-n (BNocc) beharbada Garazi-ko hizkeraren eraginez.

Orain artekoa, BONAPARTE-ren informazioa dugu.

Aezkerari dagokionean, PRINTZEA-k erabilitako iturrien arauera (Aribe-ko PEDRO JOSE informatzailea, eta egin arazitako itzulpenak) erregistro berriok —zukakoa eta xukakoa— ez omen ziren erabiltzen. Urte asko geroago, AZKUE-k besterik esan zuen:

Lo que el príncipe Bonaparte llamó inexactamente tratamiento respetuoso [ohar baten bitartez Morfologia-ra bidaltzen gaitu, 600-601 or.], es decir, la agregación de 'zu' o su característica a otras flexiones (p. ej. «egin nizun» por «egin nuen») existe también en Aezkoa, así como también la agregación de 'xu' diminutivo. Al príncipe le dijeron que no existían estos dos tratamientos —el 'zuketa' y 'xuketa'— en aezkoano y no es cierto. Entre

148. Bonaparte-k egin arazi zituen itzulpenetan oso nabarmena da absolutoaren ordezt, zukako alokutiboaren erabilera sistematikoa (BNor)-n eta (Zar)-n.

— *La prophétie de Jonas* traduite en Dialecte Basque de la Basse Navarre, tel qu'il est communément parlé dans la vallée de Cize par M. L'Abbe Casanave, Londres 1862.

— *Parábola del sembrador* traducido a los ocho dialectos del vascuence y a cuatro de sus subdialectos. Londres, 1878 (ikus 11-12 or.).

— *El salmo quincuagésimo* traducido al vascuence Aezkoano, Salacenco y Roncalés de la versión castellana del Padre Felipe Scio, por Don Martin Elizondo de Aribe, Don Pedro José Samper Abad de Jaurrieta, y Don Mariano Mendigacha de Vidángoz. Londres, 1869.

e.a.

mis apuntes hay una nota que dice: «Aribeko Pedro Josek etzue Bonaparte bear bezala argitu. Garen ustes (ustez) zuketarik eta zuketarik ezta Aezkoan, badira ordea.

Hace una cosa de un año presenté en una de nuestras sesiones un trabajo acerca de la 'conjugación familiar', como apéndice del tratado de 'Morfología Vasca'. El último de los cinco puntos que comprende el trabajo titúlase 'otra familiaridad' en nuestro verbo y *encaja muy bien aquí*¹⁴⁹.

AZKUE-k lan horretan biltzen dituen ipuinetan, behintzat, ez da inondik ere zukako edo/eta xukako aditz-joko alokutiboen arrastorik: behin bakarrik agertzen da eta zaraitzuarren ahotan jarrita(!) «XIII. Aetz ta Zaraitzuarren artean» izeneko ipuinean; hain zuzen¹⁵⁰. Bildur izatekoa da, beraz, Aezkeran zukako aditz-joko alokutiborik ez dagoela¹⁵¹; nolana ere, BONAPARTE-k zenbaitetan huts egin bide zuen: (BNocc)-ren hego-sortaldeko partean gaur xukako aditz-joko alokutiboa bizirik dago¹⁵². Bestelako leku-kotasunik edo testurik agertzen ez den bitartean dudaren uste horretan mantenduko gara¹⁵³.

BONAPARTE-ren garaietatik hona, gainera, erregistroak aldatu dira, nonbait. REBUSCHI-k uste du ekialdeko baxenafarreran, xukako aditz-joko alokutiboak erabat ordezkatu duela bere itur-

149. R. M. Azkue, «Aezkera» *Euskera* 1927, 287 or. (Geuk azpimarratua).

150. Op. cit., 204-206 or.

151. Agian Azkue-k hemen, gauk «biltzaileak» deitutako adizkerak eta xukako ez-alokutiboak zituen gogoan.

Bonaparte-k zioenez «Si la seconde personne du singulier entre dans le terminatif comme sujet, ou comme régime, le traitement diminutif peut avoir lieu, non pas dans toutes, mais seulement dans certaines variétés de dialectes autres que le bas-navarrais oriental. C'est ainsi que l'on pourra entendre 'dešu' pour 'dezu', 'tu l'as' à Cegame, 'dušu' pour 'duzu' à Hasparren, 'šira' pour 'zira tu es' à Irouleguy et à Ascarat, dans l'Aezkoa, etc.» *Le verbe basque en tableaux azkenengo orria*, (2) oharra.

152. Ikus J. M.^a Satrustegi, «Xukako aditz-joskera Luzaideko mintzairan» *Iker* I, 343-354 or.

— P. Irizar, *Contribución...*, 2. liburukia, 387 or.

— A. Irigaray, *Prosistas navarros*, Diputación Foral de Navarra. Institución «Príncipe de Viana». Pamplona. Bereziki, 19 or.

153. Irizar-ek Azkue-ri kasu eginez, zukako eta xukako forma alokutibo hipotetikoak agertzen ditu aezkerarentzat. Ikus. *Contribución...*, «cuadro 7.10».

eta korapilatuago gertatzen dena ekialdeko euskalkietan. Baliteke erabilera hori sekula behar bezain argi eta garbi finkaturik ez egona ¹⁶².

E) *Erregistroen bilakabidea eta erabilera: eskema baten bila*

Hiru ezaugarriok —alokutibotasuna (alok.), zuketa *versus* hi-keta), eta palatalizazioa (pal.)— kontuan harturik, euskarak di-tuen erregistroen «definizio» bateruntz hurbil gaitzke:

<i>Erregistroa</i>	<i>alok.</i>	<i>Zuketa</i>	<i>pal.</i>	
1	+	—		'' hi haiz hura duk ''
2	—	+		'' zu zura hura da ''
3	+	+		'' zu zura hura duzu ''
3'	—	? (163)		'' berori da hura da ''
4	+	+	+	'' xu xira hura duxu ''

162. R. Lafon-ek dioenez: «Il est hors de doute qu'en bas-navarrais oriental et en souletin l'emploi des formes allocutives respectueuses présente des flottements dont celui des formes familières est exempt. L'usage n'a peut être jamais été rigoureusement fixé», «Place de la 2^e...», 120 or.

— Esan dezagun, bide batez, J. Allieres-en «Petit Atlas Linguistique Basque-Français Sacaze» (in *Via Domitia*, VII, VIII, 1960-1961) delakoak ez di-gula gehiegizko argitasunik ematen ekialdeko tratamenduen arlo ilun ho-netaz. Gehienez ere, Bonaparte-k ezarritako isoglosak berrezartzeko balio lezake.

P. Yrizar (ikus *Contribución...*, 2 lib. 380-486 or.) oker dabil, Atlas ho-rretan oinarrituta, konklusio orokorrak ateratzen dituenean. Ipuin baten itzulpena eskatzerakoan hitzunak —Inchauspe-k ongi esplikatzen zuen be-zala— erregistro jakin bat aukeratzen du, eta normala denez, gehienetan maila horri lotuta, atxikiturik jarraitzen du ipuin guztian zehar (salbues-penak salbuespen). Bestalde, leku batzuetan zukako forma alokutiborik ez agertzeak ez du nahitaez esan nahi holakorik ez dutenik (Zuberoako eta Baxenafarreko herri batzuetan gertatzen dena).

Tokian tokiko erabilerearen berri izateko itaunketak edo/eta informa-tzaileak beharko genituzke leku bakoitzean.


163. Erregistro hau ez da «hikakoa», ezta «zukakoa» ere; kortesia ez beste zerbait adierazten du. Erregistro honi agian ondo egokitzen zaio «errespetuzkoa» adjetiboa.

Alokutibotasuna, solaskideen arteko hurkotasunaren zentzuan uler liteke; II-2'-ren erabilera, kortesiazko edo gizalegezko tratuaren seinale izan liteke, (II-2 -k kortesiarik eza adieraziko luke eta II-3 -k kortesia ez beste zerbaite: errespetua, begirunea, ...); palatalizazioa, maitetasunaren ezaugarritzat har genezake.

Ezaugarriok horrela interpretatuz gero, mailaketa hau jar genezake: $1 < 4 < 3 < (2) < 3'$. 1 erregistro apalena bajuena eta 3' (beroriketa) gorena direla (zuberoeraren kasuan, ordea, 2 erregistroa, bati baino gehiagori edo jeneralean hitz egitekoa litzateke, beraz mailaketa horretatik kanpora atera beharko genuke).

Erregistro bakoitzaren «balioa» aldatuz joango litzateke leku batetik bestera, ondoan izango litzuzkeen erregistroen arauera.



TAULA II - 1




OHARRAK

- ① * IKURAREN BITARTER ESOERA HIPOTETIKOA UDIERAZI NAHI DUGU.
- ② ZENBAKI BAT DARAMATEN LAUKIAK, ERREGISTRO DESBERDINAK DIRA.
- ③ BOROBILETAN SARTUAK "AZPISISTEMAK" LIRATEKE: HERRI DESBERDINETUOKAK, TALDE DESBERDINETUOKAK.
- ④ LUZAIDE-N ETX ARNEGI-N (ETX AGIAN ALDE HORRETAKO HERRI GEHIAGOTAN) "XUKETO" DAGO.
- ⑤ MIXE-N EZ OMEN DAGO XUKETARIK; NONBAIT SARTZEKOTAN. (S)-REKIN SARTU BEHAR.
- ⑥ AIZKERA-N EZ DAKIGU "BERORIKETA (ORIKETA)" GALDU DENEKIN.
- ⑦ (BN-OT.)-N EZ DAKIGU 3.-K BIZIRIK IRAUTEN OTE DUEN.
- ⑧ ZARAITZIERA-REN KASUAN, ZALANTZAN GAUDE 3.2,3' ERREGISTROEK BIZIRIK IRAUTEN OTE DUTEN.
- ⑨ EZ DAKIGU 4. ERREGISTROA NOIZ SORTUA DATEKEEN.

hura da
Alok.







BNor. (Garazi)
 1 < 4 < (3?) < 2



Zaraitz.
 1 < 4 < (3?) < (2?) < (3'?)

BNor.₂



III.—MARKINA ALDEKO EUSKAL TRATAMENDUEN EGOERA ETA ERABILERA

1. JASOTAKO ERANTZUNAK: ITAUNKETAREN AZTER- KETA OROKORRA

(1) «Hikako tratamendua («eztok eta baidok») ezagutzen dozu?»
«BAI» erantzun dute 155-ek. Elkarrizketaturiko guztiek, bat ere salbuespenik gabe, ezagutzen dute «EZTOK ETA BAIDOK» erre-
gistroa. Hau da, Markina aldean jende euskaldun guztiak dauka
tratamendu honen berri ¹⁶⁴.

	Etxetik	Kaletik
(2) «Nondik ezagutzen dozu?»	<u> </u>	<u> </u>
	102/%66,2	52/%33,7

Gehiengo batek, etxean entzunda, daki tratamendu honen be-
rri. Ez dira gutxi, ordea, kaletik ezagutzen dutenak: kontutan
hartu behar dugu gurasoek, askotan, etxean hika egin ez arren,
kalean lagunekin maiz egiten dutela.

(3) «Zure aitak (inoiz) erabilten dau (eban)?»

BAI	EZ
<u> </u>	<u> </u>
105/%71,9	41/%28,0

(4) «Zure amak (inoiz) erabilten dau (eban)?»

BAI	EZ
<u> </u>	<u> </u>
99/%67,3	48/%32,6

Elkarrizketaturiko 155-en gurasoen artean gehiago dira hika
egiten duten (zuten) aitak, amak baino.

164. Agian izan daiteke, alde horretan asko entzuten delako (edo en-
tzuten zelako) hikako tratamendu hori. Azkue-k zioenez «Sin duda, Moguel
tenía esa misma convicción (eso que él vivía en Markina, donde el uso de
'i' está más arraigado tal vez que en cualquier otra comarca)...» *Morfolo-
gía Vasca II*, & 642, 432 or. (32-34 lerroak). (Geuk azpimarratua).

Ikusten denez, datuok ondo josten dira aurreko galderakoekin: gehiengo batek etxetik ezagutzen du HIKETA.

	BAI	EZ
(5) «Erabilten dozu zuk inoiz?»	85/%54,8	70/%45,1

Elkarrizketaturikoen artean, erdiak baino gehiagok hika egiten du noizbait¹⁶⁵.

Beraz, AZKUE-rekin batera, esan daiteke HIKETA-k sustrai sakonak dituela(?) edo izan dituela Markina aldean.

(6) «(Ez erabiltzekotan) Zergaitik ez?»

— ondo ez dakizulako	13/%18,8 (A)
— gauza itsusia dalako	11/%15,9 (D)
— errespetu falta dalako	11/%15,9 (E)
— etxean erabilten ez dalako	32/%46,3 (B)
— gaur egun gutxi erabilten dalako	2/% 2,8 (F)
— jendeak aditzen ez dauelako	—
—	—

Galdera honen helburua zen jakitea hiketa ez erabiltzearen arrazoa: aurreritziak, ezjakintasuna, ohitura, e.a.

- Gehienek aipatu duten arrazoa, etxeko erabilera —erabilerarik eza kasu honetan— izan da. Erantzun honek, zeharka adierazten digu jende multzo honek jakin ez dakiela hika mintzatzen, etxean ikasi ez dutelako.
- Batzuek (%18,8-k) aitortzen dute arrazoi bezala, erregistro hau ondo ez jakitea edo ez menperatzea.
- Erdi-bana (%15,9-%15,9) gutxi gorabehera banatzen dira emandako gainerako arrazoiak: batzuentzat gauza itsusia da hiketa, besteentzat errespetu-falta. Beldur izatekoa da, ordea, 22 hauetako askorentzat, itsusitasuna edo

165. Hirurogeita hamar hauen artean —hika egiten ez dutenen artean alegia— badira batzuk dakitenak, baina normalean erabiltzen ez dutenak: a) esaterako, baserritik kalera bajatu diren batzuek bakarrik egiten dute hika baserritarrekin elkartzekoan; b) beste batzuek egiten dute hika beren jaioterrikoekin (Aulestikoekin,...) edo beren lehenagoko auzokoekin; d) azkenez, banaka batzuek oigetan edo txantxetan ez bada, ez dute normalean hika egiten.

Kasu berezi guztiotan, noizbehinkako erabileraren «normaltasunik eza» da nabarmena.

Hauekin batera sartu beharko lirateke kasu bitxiok:

1) emakumezko batek «Eztok eta baidok» erabiltzen zuen batez ere, hitanoz esandako elkarrizketak berriz kontatzeko.

2) Beste andre batek (atso batek) bakarrik bere buruari egiten zion hika (!).

ITAUNKETAREN LABURPEN OROKORRA

(Erantzunak)
GUZTIRA

1- HIKA-ko tratamendua("ez dok eta badok")ezagutzen dozu? _____

BAI	
155	/Ehuneko 100

===== 155

2- Nondik dakizu?

- etxetik -----
- kaletik -----
- liburuetatik -----
- ...

102/%	66,2
52/%	33,7

===== 154

3- Zure aitak (inoiz) erabilten dau(eban)? _____

BAI	EZ
→ 105/% 71,9	41/%28
→ 99/% 67,3	48/%32,6
→ 85/%54,8	70/%45,1

===== 146

4- Zure amak(inoiz) erabilten dau(eban)? _____

===== 147

5- Erabilten dozu zuk inoiz? _____

===== 155

6- (Ez erabiltzekotan) Zergatik ez?

- Ondo ez dakizulako -----
- gauza itsusia dalako -----
- errespetu falta dalako -----
- etxean erabilten ez dalako -----
- gaur egun gutxi erabilten dalako -----
- jendeak aditzen ez dauelako -----
- ...

13/%	18,8
11/%	15,9
11/%	15,9
32/%	46,3
2/%	2,8

===== 69

7- Zeure buruagaz, zeure artean zer edo zer pentsaten dozunean,
Zein tratamendu erabilten dozu? _____

HI	ZU	BIAK
30/%36,1	26/%31,3	27/%32,5

==== 83

8- (Ez)akumezkoai bakarrik) Zeure artean hika egiten dozunean,
"etorri non", "egin jonat"...formak erabilten dozuz? _____

Inoizez Batz.	Sarr.	Beti
3/%25	5/%41,6	2/%16,6
		2/%16,6

= 12

9- Animaliakaz(astoa,txakurra,txarria,behia,ardia...) Zein berba egiten dozu? _____

HI	ZU	BIAK
64/%92,7	4/%5,7	1/%1,4

===== 69

10- Eneak diran animaliakaz(behia, ardiak, txakurremea, astemea,...) Zein berba egiten dozu? Andrakaz erabilten dozuzan formak erabiliz? _____

Inoizez Batz.	Sarr.	Beti
39/%73,5	2/%3,7	2/%3,7
		10/%18,8

53

11- Jaungoikoari berba egiten deutzazunean (baina ez buruz dakizuzan ototitzen bitartez) Zein egiten deutzazu? _____

HI	ZU	BIAK
-	72/%100	-

=====72

- FAMILIAN HUKA EGITEN DEUTSAZU...

	Inoizez	Batz.	Sarr.	Beti.	GUETIRA	Inoizez	Batz.	Sarr.	Beti	GUETIRA
12-senarrari	28	100	-	-	28	24-ahizpuri	17	68	-	25
13-emazteari	39	92,8	2	4,7	1 2,3 42	25-arreburi	30	56,6	5	9,4
14-seneari	17	31,4	3	5,5	8 14,8	26-izekuri	69	100	-	69
15-alabari	24	48,9	3	6,1	5 10,2	27-osabari	68	98,5	1	1,4
16-aitari	78	100	-	-	78	28-lobari (mut)	31	50,8	5	8,1
17-amari	78	100	-	-	78	29-	39	67,2	3	5,1
18-aitaitari	78	100	-	-	78	30- suinari	26	81,2	3	9,3
19-amamari	78	100	-	-	78	31-errainari	34	97,1	-	-
20-bilobari (mut)	21	55,2	3	7,8	1 2,6	32-amaginarreba	43	100	-	-
21- "	25	64,1	2	5,1	2 5,1	33-aitaginarreba	43	100	-	-
22- anaiari	17	29,8	1	1,7	4 7,7	34-koñatuari	38	64,4	-	-
23- nebari	6	23	2	7,6	1 3,8	35-koñatari	47	83,9	1	1,7

36- Zergaitik ez?

- gauza itsusia dalako
- errespetu falta dalako
- etxean erabilten ez dalako
- aditzen ez daelako
- ...

3/4,2
9/12,6
59/83,0
-

=====71

37- Lagunartean zagozala, Zein tratamendu erabilten dozu danentzat berba egiten dozunean? _____

	HI	ZU	BIAK					
	40	49,3	21	25,9	20	24,6	==== 81	
38-39- Zu baino zaharrago dan bateri, beragaz hartuemonik ez badaukazu, Zelan egiten deutzazu? _____	(gizon)	1	1,1	83	97,6	1	1,1	==== 85
	(emak.)	-	-	85	100	-	-	
40-41-Gutxi gora-behera zure edadekoa izanda, hartuemonik ez badaukazu, Zelan egiten deutzazu? _____	(gizon)	6	1,0	70	82,3	9	10,5	==== 85
	(emak.)	-	-	83	97,6	2	2,3	
42-43-Zu baino gazteago dan bateri, hartuemonik ez badaukazu, Zelan egiten deutzazu? _____	(gizon)	19	22,6	59	70,2	6	7,1	==== 84
	(emak.)	7	8,3	76	90,4	1	1,1	
44-45-Zu baino urte gehiagoko bateri, hartuemonak egon ezkerro, Zelan egiten deutzazu? _____	(gizon)	16	18,8	64	75,2	5	5,8	==== 85
	(emak.)	9	10,5	74	87,0	2	2,3	
46-47- Zure edadeko bateri, zeuen artean hartuemonak egon ezkerro, Zelan egiten deutzazu? _____	(gizon)	59	69,4	17	20	9	10,5	==== 85
	(emak.)	28	32,9	55	64,7	2	2,3	
48-49-Zu baino gazteago dan bateri, zuen artean hartuemonak izan ezkerro, Zelan egiten deutzazu? _____	(gizon)	62	72,9	15	17,6	8	9,4	==== 85
	(emak.)	28	32,9	55	64,7	2	2,3	

50-51- Zu baino urte gehiagoko bateri, beragaz hartuemon estuak badaukazuz,
Zelan egiten deutzazu? _____ → _____

HI	ZU	BIAK
15/%11,6 8/%9,4	62/%12,9 74/%87,0	7/%8,2 2/%2,3

GUZTIRA

==== 84

52-53- Zure edadeko bateri, beragaz hartuemon estuak badaukazuz,
Zelan egiten deutzazu? _____ → _____

(gizon) (emak.)	(gizon) (emak.)	(gizon) (emak.)
69/%81,1 34/%40	12/%14,1 50/%58,8	4/%4,7 1/%1,1

====85

54-55- Zu baino gazteago dan bateri, beragaz hartuemon estuak
badaukazuz, Zelan egiten deutzazu? _____ → _____

(gizon) (emak.)	(gizon) (emak.)	(gizon) (emak.)
70/%82,3 33/%38,8	11/%12,9 50/%58,8	4/%4,7 2/%2,3

==== 85

56-57- Imaginatu egizu baserri bateko jabea zarala,
Zelan egingo zeunskio zeure morroiari(menpekoari)? _____ → _____

(gizon) (emak.)	(gizon) (emak.)	(gizon) (emak.)
36/%51,4 14/%20,2	16/%22,8 49/%71,0	18/%25,7 6/%8,6

==== 70

58-59- Imaginatu egizu baserri bateko morroia zarala,
Zelan egingo zeunskio zeure nagusiari(jabeari)? _____ → _____

(gizon) (emak.)	(gizon) (emak.)	(gizon) (emak.)
5/%6,6 1/%1,3	66/%85,0 72/%96,0	4/%5,3 2/%2,6

====75

60- Zure eritziz, hika-ko tratamendua da...

- konfidantzaren edo halango alkartasunaren seinale.
- Entzule dozunaren atentzioa zeureganatzeko bide bat...
- (beste zer edo zer) (OHITURA...)

73/% 91,2
-
7/% 8,7

=====80

61- Ezagutzen dozu "BERORI" tratamendua? _____ → _____

BAI	EZ
147/% 94,8	8/% 5,1

=====155

62- Erabilten dozu zuk? _____ → _____

51/% 33,1	103/% 66,8
-----------	------------

=====154

63- Nori esaten deutzazu "berori"?

-abadeari	46/% 90,1
-fraileari	45/% 88,0
-obispoari	47/% 92,1
-abogadoari	30/% 58,8
-notarioari	30/% 58,8
-medikuari	41/% 80,3
-agureari	5/% 9,8
-atsoari	5/% 9,8
- ...	

=====51

64- EDADEA: 15-18
 19-24
 25-30
 31-40
 41-50
 51-65
 65 edo gehiago

65- Sexoa:

66- Jaioterria:

67- Auzunea:

68- Aitaren jaioterria :

69- Amaren jaioterria:

70- Ogibidea:

-ikaslea
- etxekoandrea
-langabea
-jubilatua
- bestelako lana

errespetu-faltarena tratamenduaren ezjakintasunari gaineratzen zaizkion arrazoiak (aitzakiak?) ez ote diren.

Labur bilduz, gehiengo batek (gutxienez %65,1-k) ez darabil erregistro hau, jakin ez dakielako¹⁶⁶.

- (7) «Zeure buruagaz, zeure artean zer edo zer pentsaten dozunean, zein tratamendu erabilten dozu?»

HI	ZU	BIAK
30/%36,1	26/%31,3	27/%32,5

Hika noizbait mintzatzen direnen artean, joera dago argi eta garbi, nork bere buruari «eztok eta baidok» (HIKA) egiteko: batzuek (%36,1-ek) gehienetan hiketa erabiltzen dute bakarriketan, beste batzuek (%32,5-ek) bietara egiten dute —hika eta zuka—.

- (8) (Emakumezkoei bakarrik) Zeure artean hika egiten dozunean, «etorri non, egin jonat...» formak erabilten dozuz?»

INOIZ EZ	BATZUETAN	SARRITAN	BETI
3/%25,0	5/%41,6	2/%16,6	2/%16,6

Beren buruari hika egiten dioten emakumezkoen artean, 3-k erabiltzen dute «maskulinoa» (gizonezkoekiko adizkera bera); «femeninoa» (forma markaduna) 9-k erabiltzen dute noizbait: bederatzi hauetatik 2-k beti, 2-k sarritan eta 5-ek batzuetan bakarrik.

Datuok, LAFON-ek ematen zuen erregelaren hildotik doaz; baina, gorago esan bezala, «arau, erregela» barik, **joera** litzateke forma markagabea erabiltzeko: 4-k bakarrik erabiltzen dute gehienetan «femeninoa», gainerakoek (8-k) gehienetan «maskulinoa» erabiltzen duten bitartean. Esan daiteke beraz, «femeninoa» forma **markaduna** dela.

- (9) «Animaliakaz (astoa, txakurra, txarria, behia, ardia, ...) Zelan berba egiten dozu?»

HI	ZU	BIAK
64/%92,7	4/%5,7	1/%1,4

166. Nolanahi ere den, bistan dago aspalditik datozen aurreritzi batzuk («itsusitasuna, errespetu-falta,...») aski hedaturik daudena. Beharbada, gaur aurreritziok izan litezke ezjakintasunaren ondoriozkoak, edo behintzat, ezjakinek errazago onartuak.

— Bik esan zidatenez, amak haserre egiten omen zien txikitari hika egiteagatik. Biok gaur hiketa erabiltzen ez dutenetakoak dira.

Animaliei zuzentzerakoan, erregistro jakin bat aukeratuz gero, joera garbia dago euskaraz hika egiteko¹⁶⁷. Hemen, hika hitz egite honek esan nahi du hitanozko **flexioak** erabiliz zuzentzen zaiola euskalduna animalariari (esat. bat. «ixilik ego(n) (n)adi?»).

- (10) «Emeak diran animaliakaz (behiak, ardiak, txakurremea, as-temea, ...). Zelan berba egiten dozu? Andrakaz erabilten dozuzan formak erabiliz?»

INOIZ EZ	BATZUETAN	SARRITAN	BETI
39/%73,5	2/%3,7	2/%3,7	10/%18,8

Oraingoan ere, **joera** garbia ageri da forma «maskulinoa» erabiltzeko; baina emakumezkoen kasuan bezalaxe salbuespen dexente aurkitu ditugu (%22,5).

Berriz ere, azpimarratu behar dugu «maskulinoa» forma markagabea dela¹⁶⁸.

- (11) «Jaungoikoari berba egiten deutzazunean (baina ez buruz dakizuzan otoitzen bitartez). Zelan egiten deutzazu?»

HI	ZU	BIAK
—	72/%100	—

Erantzun duten guztiek, den-denek, Jainkoarekiko bakarkako harremanetan **zuketa** erabiltzen dute.

- (12) «Familian, hika egiten deutzazu senarrari?»

INOIZ EZ	BATZUETAN	SARRITAN	BETI
28/%100	—	—	—

- (13) «Familian, hika egiten deutzazu emazteari?»

INOIZ EZ	BATZUETAN	SARRITAN	BETI
39/%92,8	2/%4,7	—	1/%2,3

167. Galdera honi hain jende gutxik erantzutearen arrazoia zera da: gehienetan animaliei aginduak ematen zaizkie, eta noski, horretarako bide aproposena euskaraz partizipioa («etorri, joan,...») eta aditzlaguna-adberbioa («aurrera, atzera, ix, geldi,...») ditugu.

— Batek esan zidan «onean» zuketa erabiltzen zuela, baina haserreal-dian hiketara jotzen zuela.

168. Gogoratu (167) oharrean esana.

— Batek esan zidan emeari «ezton eta baidon» egiten ziola, honela: «ego nadi!» (!) «zer egin don?».

(14) «Familian hika egiten deutsazu semeari?»

<u>INOIZ EZ</u>	<u>BATZUETAN</u>	<u>SARRITAN</u>	<u>BETI</u>
17/%31,4	3/%5,5	8/%14,8	26/%48,1
A		B	

(15) «Familian hika egiten deutsazu alabari?»

<u>INOIZ EZ</u>	<u>BATZUETAN</u>	<u>SARRITAN</u>	<u>BETI</u>
24/%48,9	3/%6,1	5/%10,2	17/%34,6
A		B	

(16) «Familian hika egiten deutsazu aitari?»

<u>INOIZ EZ</u>	<u>BATZUETAN</u>	<u>SARRITAN</u>	<u>BETI</u>
78/%100	—	—	—

(17) «(Familian). Hika egiten deutsazu amari?»

<u>INOIZ EZ</u>	<u>BATZUETAN</u>	<u>SARRITAN</u>	<u>BETI</u>
78/%100	—	—	—

(18) «(Familian). Hika egiten deutsazu aitaitari?»

<u>INOIZ EZ</u>	<u>BATZUETAN</u>	<u>SARRITAN</u>	<u>BETI</u>
78/%100	—	—	—

(19) «(Familian). Hika egiten deutsazu amamari?»

<u>INOIZ EZ</u>	<u>BATZUETAN</u>	<u>SARRITAN</u>	<u>BETI</u>
78/%100	—	—	—

(20) «(Familian). Hika egiten deutsazu bilobari (mutilari)?»

<u>INOIZ EZ</u>	<u>BATZUETAN</u>	<u>SARRITAN</u>	<u>BETI</u>
21/%55,2	3/%7,8	1/%2,6	13/%34,2
A		B	

(21) «(Familian). Hika egiten deusazu bilobari (neskari)?»

<u>INOIZ EZ</u>	<u>BATZUETAN</u>	<u>SARRITAN</u>	<u>BETI</u>
25/%64,1	2/%5,1	2/%5,1	10/%25,6
A		B	

(22) «(Familian). Hika egiten deusazu anaiari?»

<u>INOIZ EZ</u>	<u>BATZUETAN</u>	<u>SARRITAN</u>	<u>BETI</u>
17/%29,8	1/%1,7	4/%7,0	35/%61,4
A		B	

(23) «(Familian). Hika egiten deusazu nebari?»

<u>INOIZ EZ</u>	<u>BATZUETAN</u>	<u>SARRITAN</u>	<u>BETI</u>
6/%23,0	2/%7,6	1/%3,8	17/%65,3
A		B	

(24) «(Familian). Hika egiten deusazu ahizpari?»

<u>INOIZ EZ</u>	<u>BATZUETAN</u>	<u>SARRITAN</u>	<u>BETI</u>
7/%28,0	1/%4,0	—	17/%68,0
A		B	

(25) «(Familian). Hika egiten deusazu arrebari?»

<u>INOIZ EZ</u>	<u>BATZUETAN</u>	<u>SARRITAN</u>	<u>BETI</u>
30/%56,6	5/%9,4	1/%1,8	17/%32,0
A		B	

(26) «(Familian). Hika egiten deusazu izekori?»

<u>INOIZ EZ</u>	<u>BATZUETAN</u>	<u>SARRITAN</u>	<u>BETI</u>
69/%100	—	—	—

(27) «(Familian). Hika egiten deutzazu osabari?»

INOIZ EZ	BATZUETAN	SARRITAN	BETI
68/%98,5	1/%1,4	—	—

(28) «(Familian). Hika egiten deutzazu lobari (mutilari)?»

INOIZ EZ	BATZUETAN	SARRITAN	BETI
31/%50,8	5/%8,1	4/%6,5	21/%34,4
A		B	

(29) «(Familian). Hika egiten deutzazu lobari (neskari)?»

INOIZ EZ	BATZUETAN	SARRITAN	BETI
39/%67,2	3/%5,1	4/%6,8	12/%20,6
A		B	

(30) «(Familian). Hika egiten deutzazu suinari?»

INOIZ EZ	BATZUETAN	SARRITAN	BETI
26/%81,2	3/%9,3	—	3/%9,3
A		B	

(31) «(Familian). Hika egiten deutzazu errainari?»

INOIZ EZ	BATZUETAN	SARRITAN	BETI
34/%97,1	—	—	1/%2,8

(32) «(Familian). Hika egiten deutzazu amaginarrebari?»

INOIZ EZ	BATZUETAN	SARRITAN	BETI
43/%100	—	—	—

(33) «(Familian). Hika egiten deutzazu aitagarrebari?»

INOIZ EZ	BATZUETAN	SARRITAN	BETI
43/%100	—	—	—

(34) «(Familian). Hika egiten deutzazu koinatuari?»

INOIZ EZ	BATZUETAN	SARRITAN	BETI
38/%64,4	—	1/%1,6	20/%33,8
A		B	

(35) «(Familian). Hika egiten deutzazu koinatari?»

INOIZ EZ	BATZUETAN	SARRITAN	BETI
47/%83,9	1/%1,7	1/%1,7	7/%12,5
A		B	

(36) «Zergaitik ez?»

— gauza itsusia dalako	3/% 4,2
— errespetu falta dalako	9/%12,6
— etxean erabilten ez dalako	59/%83,0
— aditzen (entenditzen) ez dauelako	—
—	—

Ikusten denez, *senar-emazteen artean ez da ia-ia sekula* (salbuespen bat edo beste alde batera utzita) *hiketa ohitzen*. Ohitura hau euskaran aintzinakoa bide da: XVI. mendeko ezkontza leku-kotasunetan ia beti, senargaiak eta emaztegaiak elkarri zuzentzen dizkioten hitzak zuka daude¹⁶⁹.

Hiketa erabiltzen dutenen artean *joera dago seme-alabei hika egiteko*; baina askoz ere *gutxiago dira alabari* (alabei) hika egiten diotenak.

Familian, nork bere «goragokoari» (aitari, amari, aitaitari, amamari) *ez dio sekula hika egiten*.

169. Salbuespen bat ere badago (J. M.^a Satrustegi, «Promesa matrimonial del año 1547 en euskera de Uterga» *FLV*, 1977), baina hiketa erabiltzea esplikatu liteke kasu horretan, ezkontza-agintzearen «formaltasunik eza-gatik».

Ikus.: A. Irigaray, «Promesa de matrimonio en euskera» *Yakintza*, 1934, 130 or.

— B. Fagoaga, «Algunas frases inéditas del euskera antiguo» *Euskera*, 1961, 27-29 or.

— A. Irigaray, «El euskera en Zufia» *RIEV*, XXIV (1933), 34-36 or.

— Gainera, markinar batek esan zuenez, gazte denboran neska-mutilen artean hika egin arren, behin «harreman serioak» hasiz gero —nobio tan alegia— hiketa baztertu eta zukara igarotzen omen dira.

Ikusi bezala, semeari gehiengo batek hika egiten badio ere, *bataz bestekoa jaitsi egiten da bilobaren kasuan*¹⁷⁰. Halaber, *biloba mutila izatetik neska izatera jaisten da* hiketaren erabileraren bataz bestekoa.

Neba-arreben artean joera garbia dago hika egiteko. Gizonezkoak beren *arrebei, orde, nekezago* ematen diete hikako tratamendua: hika mintzatzeko ohitura dutenen artean, erdia baino gutxiago dira arrebeekin «ezton eta baidon» darabiltenak.

Alderantziz ez da gauza bera gertatzen: emakumezkoek beren nebeekin jeneralean hikako erregistroa darabilte¹⁷¹.

Izekori eta osabari, ia-ia salbuespenik gabe, *zuka* egiten diete. Semearen kasuan ez bezala, *erdira ere ez dira heltzen lobei hika egiten dietenak*. *Neskak direnean, berriz ere behera egiten du* nabarmenki hiketaren bataz bestekoak, «loba-mutila» kasuaren aldean (eta «alaba» eta «biloba-neska» kasuen aldean).

Gehiengoak zuka hitz egiten die suinei eta errainei. Gutxitan gertatzen bada suinari hikako tratamendua ematea, are *gutxiagotan suertatzen da hori errainaren kasuan*.

Den-denek, batek ere huts egin gabe, *zukako erregistroa erabiltzen dute amaginarrebari eta aitaginarrebari zuzentzerakoan*.

Koinatuarekin gehienek «eztozu ta baidozu» erabiltzen badute ere, ez dira gutxi «eztok eta baidok» egiten diotenak. *Koinatarekin jaitsi egiten da* hitanoaren maiztasuna: askoz ere nekezago zuzenduko zaizkie koinatari hika, koinatuari baino.

Jende gehienaren ustetan, hitanoaren erabilera etxe bakoitzean, *etxeko ohiturak* ezarritakoa da, bestelako arrazoirik gabe.

Etxeko erabileraren berri emateko, beraz, hiru aldagai nagusiok kontutan hartu beharko genituzke: *adina, sexoa eta ahaidetasun-maila*.

Hurreko ahaidetasun-mailakoen artean adinak eta sexoak erabakitzen dute aukera: zaharragoak hika «egin diezaioke» gazteagoari, baina ez alderantziz.

Sexoa, bestalde, «traba» izan daiteke hitanoa erabiltzeari begira: gizonezkoa nekezago zuzenduko zaio emakumezkoari hika, alderantziz baino.

Hain hurreko ez diren ahaidetasun-mailetakoeekin, aipatu berri ditugun baldintzak bete direlarik ere, nekezago agertuko da konfi-

170. Kontutan hartu dugu umeari ez zaiola hika egiten sasoi batera iritsi arte: hiketa erabiltzeko sasoi-muga 8-12 urte bitartean egon liteke.

Haurrari (eta ez haurrari bakarrik) hika mintzatzearekin zerikusia izan dezakeen beste aldagai bat izakera izan daiteke. Ikus P. Lafitte «Koska eta entterka Heletan» *Euskera*, 1977.

171. Zenbaitetan —hiru bider gutxienez— gertatu da hiketa ez erabiltzea anai nagusiarekin askoz ere zaharragoa izateagatik.

dantzazko tratamendua: bilobari, lobari, suinari, errainari, koinatu-koinatari ez zaio «hain errez» hika mintzatuko.

Honi, adinaren eragozpena edo/eta sexoaren «traba» gaineratuz gero, are gutxiagotan agertuko da hiketa.

Aparte geratuko litzaiguke *senar-emazteen kasua*: zergatik, zer dela eta, zuka hitz egiteko ohitura zahar hori?

- (37) «Lagunartean zagozala, zein tratamendu erabilten dozu damentzat berba egiten dozunean?»

HI	ZU	BIAK
40/%49,3	21/%25,9	20/%24,6

Gutxienak dira talde bati zuzentzerakoan hiketa alde batera uzten dutenak: gehiengo batek bat baino gehiagorekin berba egiterakoan ere, hiketari eusten dio, baldin hizketa-lagun guztiak konfidantzazkoak badira (!) ¹⁷².

Hau dela eta, hitanoa biren artekoa delako ustea sustraiz egia bada ere, gaurko euskaran salbuespenak ditu hango eta hemengo erabileran.

Dena den, bistan dago jatorrizko erabilera biren artekoa izan dena ¹⁷³.

- (38) «Zu baino zaharragoa dan bateri, beragaz hartuemonik ez badaukazu, zelan egiten deutzazu?» (gizonezkoa bada hizketa-laguna).

HI	ZU	BIAK
1/%1,1	83/%97,6	1/%1,1

- (39) Galdera bera: (emakumezkoari) (emakumezkoa den hizketa-lagun zaharragoari... zelan egiten deutzazu?)

HI	ZU	BIAK
—	85/%100	—

172. Konfidantzazkoa ez den bakar bat egonez gero, «eztozu ta bai-dozu»-ra jotzen dute.

173. Ikus II. atala, II-E)-2).

- (40) «Zu baino zaharragoa dan bateri, beragaz hartuemonik ez badaukazu, zelan egiten deutzazu?»

HI	ZU	BIAK
6/%7,0	70/%82,3	9/%10,5

- (41) Galdera bera: hizketa-lagun hipotetikoak emakumezkoak delarik

HI	ZU	BIAK
—	83/%97,6	2/%2,3

- (42) «Zu baino gazteagoa dan bateri, hartuemonik ez badaukazu, zelan egiten deutzazu?»

HI	ZU	BIAK
19/%22,6	59/%70,2	6/%7,1

- (43) Galdera bera: hizketa-lagun hipotetikoak emakumezkoak delarik

HI	ZU	BIAK
7/%8,3	76/%90,4	1/%1,1

- (44) «Zu baino urte gehiagoko bateri, hartuemonak egon ezkeror, zelan egiten deutzazu?»

HI	ZU	BIAK
16/%18,8	64/%75,2	5/%5,8

- (45) Galdera bera: hizketa-lagun hipotetikoak emakumezkoak delarik

HI	ZU	BIAK
9/%10,5	74/%87,0	2/%2,3

- (46) «Zure edadeko bateri, zeuen artean hartuemonak egon ezkerro, zelan egiten deutsalzu?»

<u>HI</u>	<u>ZU</u>	<u>BIAK</u>
59/%69,4	17/%20,0	9/%10,5

- (47) Galdera bera: hizketa-laguna emakumezkoa delarik

<u>HI</u>	<u>ZU</u>	<u>BIAK</u>
28/%32,9	55/%64,7	2/%2,3

- (48) «Zu baino gazteagoa dan bateri, zuen artean hartuemonak izan ezkerro, zelan egiten deutsalzu?»

<u>HI</u>	<u>ZU</u>	<u>BIAK</u>
62/%72,9	15/%17,6	8/%9,4

- (49) Galdera bera: hizketa-laguna emakumezkoa delarik

<u>HI</u>	<u>ZU</u>	<u>BIAK</u>
28/%32,9	55/%64,7	2/%2,3

- (50) «Zu baino urte gehiagoko bateri, beragaz hartuemon estuak badaukazuz, zelan egiten deutsalzu?»

<u>HI</u>	<u>ZU</u>	<u>BIAK</u>
15/%17,6	62/%72,9	7/%8,2

- (51) Galdera bera: hizketa-laguna emakumezkoa delarik

<u>HI</u>	<u>ZU</u>	<u>BIAK</u>
8/%9,4	74/%87,0	2/%2,3

- (52) «Zure edadeko bateri, beragaz hartuemon estuak badaukazuz, zelan egiten deitsazu?»

<u>HI</u>	<u>ZU</u>	<u>BIAK</u>
69/%81,1	12/%14,1	4/%4,7

- (53) Galdera bera: hizketa-laguna emakumezkoa delarik

<u>HI</u>	<u>ZU</u>	<u>BIAK</u>
34/%40,0	50/%58,8	1/%1,1

- (54) «Zu baino gazteagoa dan bateri, beragaz hartuemon estuak badaukazuz, zelan egiten deitsazu?»

<u>HI</u>	<u>ZU</u>	<u>BIAK</u>
70/%82,3	11/%12,9	4/%4,7

- (55) Galdera bera: hizketa-laguna emakumezkoa delarik

<u>HI</u>	<u>ZU</u>	<u>BIAK</u>
33/%38,8	50/%58,8	2/%2,3

TAULA III - 1

Hizketa-laguna = gizonezkoa

	Hi	ZU	Biak	Hi	ZU	Biak	Hi	ZU	Biak
Zaharrragoari	$\frac{1}{\%1,1}$	$\frac{83}{\%97,6}$	$\frac{1}{\%1,1}$	$\frac{16}{\%18,8}$	$\frac{64}{\%75,2}$	$\frac{5}{\%5,8}$	$\frac{15}{\%17,6}$	$\frac{62}{\%72,9}$	$\frac{7}{\%8,2}$
Adin berekoari	$\frac{6}{\%7,0}$	$\frac{70}{\%82,3}$	$\frac{9}{\%10,5}$	$\frac{59}{\%69,4}$	$\frac{17}{\%20,0}$	$\frac{9}{\%10,5}$	$\frac{69}{\%81,1}$	$\frac{12}{\%14,1}$	$\frac{4}{\%4,7}$
Gazteagoari	$\frac{19}{\%22,6}$	$\frac{59}{\%70,2}$	$\frac{6}{\%7,1}$	$\frac{62}{\%72,9}$	$\frac{15}{\%17,6}$	$\frac{8}{\%9,4}$	$\frac{70}{\%82,3}$	$\frac{11}{\%12,9}$	$\frac{4}{\%4,7}$

⊖ ← "ADISKIDETASUNA" → ⊕

Hizketa-laguna = gizonezkoa

Hizketa-laguna = emakumezkoa

	Hi	ZU	Biak	Hi	ZU	Biak	Hi	ZU	Biak
Zaharrragoari	-	$\frac{85}{\%100}$	-	$\frac{9}{\%10,5}$	$\frac{74}{\%87}$	$\frac{2}{\%2,3}$	$\frac{3}{\%9,4}$	$\frac{74}{\%87,0}$	$\frac{2}{\%2,3}$
Adin berekoari	-	$\frac{83}{\%97,6}$	$\frac{2}{\%2,3}$	$\frac{28}{\%32,9}$	$\frac{55}{\%64,7}$	$\frac{2}{\%2,3}$	$\frac{34}{\%40}$	$\frac{50}{\%58,8}$	$\frac{1}{\%1,1}$
Gazteagoari	$\frac{7}{\%8,3}$	$\frac{76}{\%90,4}$	$\frac{1}{\%1,1}$	$\frac{28}{\%32,9}$	$\frac{55}{\%64,7}$	$\frac{2}{\%2,3}$	$\frac{33}{\%38,8}$	$\frac{50}{\%58,8}$	$\frac{2}{\%2,3}$

⊖ ← "ADISKIDETASUNA" → ⊕

Familiatik kanpora, hirurok ditugu aldagai nagusiak: *sexoa, adina eta adiskidetasuna (konfidantza)*.

Beti askoz ere jende gutxiagok egiten dio hika *emakumezkoari*. Beroni, gazteagoa izan ezik eta konfidantzarik eduki ezik ez zaio inortxo ere hika zuzenduko.

Adina garrantzi handikoa da: zaharragoarekin asko kostata erabiliko dute hitanoa; hizketa-laguna zenbat eta gazteagoa izan, hainbat eta gehiagok egingo diote hika. Inolako konfidantzarik ez dagoenean, batez ere, garbi ageri da adinaren pisua tratamendua aukeratzekoan; bestelakoetan, sasoi berekotik «gazteago»-ra ez dago hainbesteko igoera, edo mantendu egiten da batz bestekoa.

Adiskidetasunari gagozkiola, esan behar dugu zenbat eta konfidantza handiagoa izan, orduan eta probabilidade altuagoa izango dela hiketa agertzeko. Salbuespen bakarra dago: zaharragoarekin, itzelezko konfidantza izanda ere, hiketaren batz bestekoa ez da igotzen.

- (56) «Imaginatuz egizu baserri bateko jabea zarala. Zelan berba egingo zeunskio zeure morroiari (menpekoari)?»

HI	ZU	BIAK
36/%51,4	16/%22,8	18/%25,7

- (57) Galdera bera: hizketa-laguna emakumezkoa dela (neska-me...)

HI	ZU	BIAK
14/%20,2	49/%71,0	6/%8,6

- (58) «Imaginatuz egizu baserri bateko morroia zarala. Zelan egingo zeunskio zeure nagusiari (jabeari)?»

HI	ZU	BIAK
5/%6,6	66/%85,0	4/%5,3

- (59) Galdera bera: hizketa-laguna emakumezkoa delarik

HI	ZU	BIAK
1/%1,3	72/%96,0	2/%2,6

Galdera hauen bitartez, jakin nahi nuen norberaren egoera sozio-ekonomikoak zer ikusia ote zuen erregistro desberdinak auke-ratzearekin.

Datuok, lehenengo ikustaldi batean okerreko bidetik eramateko arriskua badute ere, orain artean aipaturiko aldagaien barruan ulertu behar direlakoan gaude: gazteagoari sarritan egiten zaio hika, nekez zaharragoari, sarriago gizonezkoari emakumezkoari baino, ...

Norberak gizartean duen lekuak, beraz, (aparteko leku ondo markatua ez bada: abadea, frailea, medikua, abogadoa, ...) ez du gehiegizko eraginik hikako eta zukako erregistroen artean aukera egiterakoan ¹⁷⁴.

(60) «Zure eritziz, hikako tratamendua da

— konfidantzaren edo halango alkartasunaren seinale	73/%91,2
— entzule dozunaren atentzioa zeureganatzeko bide bat	—
— (beste zer edo zer) OHITURA	7/%8,7

Esan beharra dago hirugarren erantzuna «ohitura» izan zela gehienetan.

Bistan dago beraz: gaurko euskaldunarentzat hitanoa ez da entzulearen arreta bereganatzeko bide bat, halako konfidantzaren edo hurkotasunaren seinalea baizik.

Sinkroniaren ardatzetik (gaurko erabileraren aldetik) ez dago beste hizkuntzetako «datibo etiko» delakoarekin alderatzerik.

(61) «Ezagutzen dozu «BERORI» tratamendua?»

BAI	EZ
147/%94,8	8/%5,1

(62) «Erabilten dozu zuk?»

BAI	EZ
51/%33,1	103/%66,8

174. Galdera hauek egiterakoan, askok eta askok adierazi zidaten adinaren arauera egingo zutela erregistroaren aukeraketa.

— Lehenagoko itaunketa batean, galdegiten genuen ea nola hitz egiten zioten pobreaki eta aberatsari. Baina galdera, era horretara zuzenegia zelakoan, eta erantzuna «arrazoi etikoengatik» saihets zezaketelakoan, nahia-go izan genuen zeharragoko beste era batera formulatu.

(63) «Nori esaten deutzazu "BERORI"?»

— abadeari	46/%90,1
— fraileari	45/%88,0
— obispoari	47/%92,1
— abogadoari	30/%58,8
— notarioari	30/%58,8
— medikuari	41/%80,3
— agureari	5/% 9,8
— atsoari	5/% 9,8

BERORIKETA erdiak baino gutxiagok erabiltzen du gaur egun. Batez ere, honako pertsonekin: ABADEA, FRAILEA, OBISPOA, MEDIKUA, ABOGADOA, NOTARIOA. Banaka batzuek zaharrek ere erabiltzen dute eta batek edo bestek maisuarekin eta albaitariarekin.

2. HIKETA ETA BERORIKETA ERREGISTROEN ERABILERA ADINAREN ARAUERA

Beti gurasoen belaunalditik seme-alaben belaunaldira behar akada handia nabaritzen da hiketaren erabilerari dagokionean. Hala ere, esan genezake «zaharrek» (51 urtetik gorakoek) hobeto gorde izan dutela gurasoengandik ikasia: gazteagoen kasuan, gora-behera batzuekin bada ere, galtze larriagoa dugu.

Adinari begiratuta, berehala konturatzen gara 51 urtetik gorakoek hobeto eutsi diotela hikako erregistro honi: hortik aurrera, zenbat eta gazteagoak izan hainbat eta beherago jaisten da hitanoaren erabileraren batz bestekoa. Gainera beherakada, geldigeldika mamitzen bada ere, gero eta nabarmenagoa da: 9,2 puntukoa lehenengo, 13,7-koa hurrengo belaunaldian eta 17 puntukoa azken honetatik 25-30 urte bitartekoenera.

31-40 urte bitartekoen belaunaldian hitanoa gutxiengo batena izatera pasatzen da eta beherengo puntura iristen da 25-30 urtekoekin. Hauxe da, hain zuzen, beherako joeraren aldagunea edo

okergunea: 19-24 urte bitartekoekin berriro gora egiten du hitanoaren erabilerak, gehiengoarena izateraino. Hortxe berriz ere okergunea, eta belaunaldi gazteagokoekin lehengo galtzeko joera berbera hasten da errepikatzen.

25-30 urte bitartekoen hitanoarekiko (tratamenduekiko?) «utziera»-ren aldean, hurrengo belaunaldikoen eskutik halako piztuera edo gorakada izatea oso gertaera bitxia eta esanguratsua da: agian euskararen beraren garai desberdinetako egoerek zerikusi handia izan dute gorabehera guztiokin.

Nolanahi ere den, oro har hitanoa maldan behera doalakoan gaude —salbuespenak albuespen— eta oraingo martxan jarraituz gero Markinako *hirian* behintzat hikako erregistro honek ez du etorkizun onik izango.

Hiketa ez erabiltzearen arrazoiak desberdinak dira adinaren arauera: 51 urtetik gorakoentzat hitanoaren gainean dabilzan aurreritziak («itsusia, errespetu falta...») pisu handia bide dute. Arrazoiok (aitzakiok?) jaitsi egiten dira adinarekin batera, eta gazteagoek gehiagotan aitortzen dute beren ez-jakintasuna, alegia, tratamendua gogoko dute baina erregistroaren zailtasunarekin behaztopatzen dira. Gazteriak hiketarekiko duen jarrera zabala edo eritzi kutsatu gabea inportantea izan liteke etorkizunari begira: zailtasunaren aldetiko eragozpenok leuntzea izan liteke eskolaren zeregin garrantzitsua.

Beroriketaren erabileraren batz bestekoa jaitsi egiten da adinarekin batera harik eta zerora iritsi arte: okergunea oraingoa ere 25-30 urte bitartekoekin agertzen zaigu. Hortik aurrera gero eta gehiago erabiltzen hasten da.


Irudi hau, aurrekoa ez bezala, zentzu honetan interpretatu behar da gure ustez: txikitan eta gazte denboran jendea lotuago dago nagusien normari, baina behin adin batera iritsiz gero bertan behera uzten dute lehengo ohitura.

Edozein modutan ere, bistan dago beroriketa erregistroa hiltzear aurkitzen dena.


Galdera Adina	2. Galdera Nondik ? Etzetik, Kaletik	3. Galdera Aitak Bai/ Ez	4. Galdera Amak Bai/ Ez	5. Galdera Elkarrizketa- tuak Bai/ Ez	6. Galdera Zergatik ez ? 1) 2) 3) 4) 5)	62. Galdera Beroriketa Bai/ Ez
65+	16/8	15/8	16/7	16/9 %64,0/ %36	-/3/4/ 2/ - 7 %77,7	18/7 %72 / %28
51-65	25/10	24/9	25/9	23/12 %65,7 / %34,2	-/ 2/ 3/ 6/ 1 5	16/18 %47,7/ %52,9
41-50	16/7 %69,5/	16/5 %76,1/	15/6 %71,4/	13/10 %56,5/	-/ 2/ 1/ 7/ - %33,3/	7/16 %30,4/
31-40	14/7 %66,6/	15/5 %75/	12/8 %60/	9/12 %42,8/	2/ 2/ 2/ 5/ - %33,3	2/19 %9,5/
25-30	5/7 %41,6/	5/6 %45,4/	5/6 %45,4/	3/9 %25/	3/ -/ -/ 5/ - %33,3	-/12
19-24	18/4 %81,8/	18/4 %81,8/	16/6 %72,7/	13/9 %59,0/	4/ 2/ 1/ 3/ - %44/ %33/ %33/-	4/18 %18,1/
15-18	8/9 %47/	12/4 %75 /	10/6 %62,5/	8/9 %47 /	4/ -/ -/ 3/ 1 %44/ -	4/13 %23,5/

TAVLA III - 2

TAULA III-8



BERORIKETA



HIKETA

3. HIKETA ETA BERORIKETA ERREGISTROEN ERABILERA SEKSU ETA ADINAREN ARAUERA

Gaur egun, Markina aldean hika egiten duen emakumezko ba-koitzeko, bi gizonezko baino gehiago aurkituko ditugu, hitanoa erabiltzen dutenak. Honetan, itxura denez, itzelezko aldakuntza gertatu da: lehen hiketaren erabilerari begira ez zegokeen hainbesteko alderik gizonezko izatetik emakumezko izatera. Gaur, ordea, esan daiteke hitanoa batez ere gizonezkoen kontua dela.

Oro har, Markina aldean gehiago justu batek (%54,8-k) erabiltzen du hiketa; baina batz besteko hau nabarmenki igotzen da gizonezkoen kasuan eta nabarmenki jaisten emakumezkoengan. Beraz, gizonezkoetan gehiago garbi batek egiten du hika, emakumezkoetan gutxiengo batek egiten duen bitartean.

Emakumezkoek hika ez egitearen arrazoi nagusitzat ohitura aipatzen dute; pentsatu behar dugu Markinako hirian emakumezkoek hitanoa ez erabiltzeko ohitura hau ez dela hain berria.

Beroriketari dagokionean, emakumezkoak ez dira nonbait, gizonezkoak bezain berrizaleak.

Hiketa emakumezko gutxi erabili arren, erabiltzen dutenek «normaltasunez» erabiltzen dute: emakumezko bat, konfidantza izanez gero, ia-ia berdin zuzenduko zaio hika bere sexoko bati eta gizonezko bati. Gizonezkoetan, ordea, lau bider gutxiagok hitz egingo diote hika emakumezko bati gizonezko bati baino. Guzti honen ondorioz, esan daiteke hiketa gizonezkoen arteko kontua dela gehienbat.

Adina kontutan harturik, emakumezkoen kasuan gorago aipaturiko joerak handi-handika errepikatzen badira ere, ez dago bat-bateko ikaragarritzko gorabeherarik urteen arauera.

Gizonezkoen kasuan, oster, beherakada itzela dugu 25-30 urte bitartekoetaraino. Adin gehienetan gizonezkoen gehiago batek hika egiten duela azpimarratu behar da.

Nahiz eta hasieran esan bezala beroriketa galdu aginean egon, adineko emakumezkoak erregistroaren «gordetzaille hobeak» direla esan behar da.

Gainerakoan joera berbera nabaritzen da gizonezkoen eta emakumezkoen aldetik.

	2. Galdera Nondik ? Etzetik(Kaletik	3. Galdera Aitak Bai / EZ	4. Galdera Amak Bai / Ez	5. Galdera Elkarrizketatuak Bai / Ez	6. Galdera Zergaitik ez? 1/ 2/ 3/ 4/ 5	62. Galdera Beroriketa Bai/ Ez
<u>GIZONAK</u>	59/ 16 %78,6/ %21,3	60/ 12 %83,3/%16,6	59/ 14 %80,8/ %19,1	58 / 18 %76,3 /%23,6	3/ 2/ 5/ 7/ 1 ... %38,8	22 / 53 %29,3/ %70,6
<u>ANDREAK</u>	43/ 36 %54,4/%45,5	45/ 29 %60,8/%39,1	40/ 34 %54,0/ %45,9	27/ 52 %34,1/ %65,8	10/ 9/ 6/25/ 1 ... /%29,4/%49	29/ 50 %36,7/ %63,2


GAILDERA		38-39	40-41	42-43	44-45	46-47	48-49	50-51	52-53	54-55
		(biak)hi/zU	(biak)hi/zU	(biak)hi/zU	(biak)hi/zU	(biak)hi/zU	(biak)hi/zU	(biak)hi/zU	(biak)hi/zU	(biak)hi/zU
<u>GIZONAK</u>	gizonari	(1) 1/ 56 %3,4	(8) 6/44 %24,1	(6) 17/35 %39,6	(3) 12/ 43 %25,8	(8) 47/ 3 %94,8	(7) 47/ 4 %93,1	(5) 11/ 42 %27,5	(3) 53/2 %93,1	(3) 53/2 %96,5
	andreaki	/58 % 0,	(1) -/ 51 %1,7	(1) 5/ 52 %10,3	(-) 4/ 54 %6,8	(1) 12/ 45 %22,4	(1) 12/45 %22,4	(-) 3/ 55 %5,1	(1) 14/43 %25,8	(2) 14/42 %27,5
<u>ANDREAK</u>	gizonari	-/26 % 0,	(1) -/25	2/ 23	(2) 4/ 20 %23,0	(1) 12/ 13 %50	(1) 15/10 %61,5	(2) 4/ 20 %23,0	(1) 16/9 %65,3	(1) 17/8 %69,2
	andreaki	-/ 26	(1) -/ 25	2/ 23	(2) 5/ 19 %26,9	(1) 16 / 9 %65,3	(1) 16/ 9 %65,3	(2) 5 /19 %26,9	(-) 20/6 %76,9	(-) 19/ 7 %73,0

TAULA III - 5


TAULA III - 6

	HIKETA		BERRIKETA	
	Gizonak	Andreak	Gizonak	Andreak
	Bai/ Ez	Bai/ Ez	Bai /ez	Bai/ Ez
Adina	12 / 1 (13)	4 / 8 (12)	9 / 4 (13)	9 / 3 (12)
65 +	%92,3	%33,3	%69,2	% 75
51-65	15 / 3 (18)	8 / 9 (17)	7 / 10 (17)	9 / 8 (17)
	%83,3	%47,0	%41,1	% 52,9
41-50	10 / 0 (10)	3 / 10 (13)	1 / 9 (10)	6 / 7 (13)
	% 100	%23,0	% 10,	%46,1
31-40	6 / 4 (10)	3 / 8 (11)	1 / 9 (10)	1 / 10 (11)
	%60,	%27,2	%10	% 9,
25-30	2 / 4 (6)	1 / 5 (6)	- / 6 (6)	- / 6 (6)
	%33,3	%16,6	-	-
19-24	8 / 2 (10)	5 / 7 (12)	2 / 8 (10)	2 / 10 (12)
	%80,	%41,6	% 20,	% 16,6
15-18	5 / 4 (9)	3 / 5 (8)	2 / 7 (9)	2 / 6 (8)
	%55,5	%37,5	%22,2	% 33,3
Guztira	58 / 38	27 / 52	22 / 53	29 / 50

TAULA III - 7



HIKETA



BERORIKETA

4. HIKETA ETA BERORIKETA ERREGISTROEN ERABILERA AUZUNEZ AUZUNE

Markina eta Urberuaga erdigunea direla, hiketa gero eta gehiagok erabiltzen duteneko eremuak agertzen zaizkigu: erdigunetik zenbat eta urrunago hainbat eta bizitza zabalagoa bide dauka erregistro honek.



Markinan eta Urberuagan erdira ere ez da iristen hika egiten dutenen kopurua (batez ere emakumezkoek egiten ez dutelako!). Amalloa-n, Illunzar-en eta Meaben gehiengo batek erabiltzen du hitanoa, emakumezko batzuek huts egiten dutela; hurrengo datoz Barinaga eta Iturreta: berauetan gehiengo garbi batek egiten du hika, emakumezko batek edo bestek ezik; azkenez, sartalderuntz urrunen daudenak ditugu: Arta, Bolibar, Zenika eta Ziortza. Azkenengo auzuneotan —salbuespenak albuespen— guztiak erabiltzen dute hikako erregistro hau (Ikus hurrengo orrialdeko mapa).


Auzuneetan hiketa ez erabiltzearen arrazoitzat ia-ia guztiak ohitura ematen duten bitartean, Markinako hirian ez dira gutxi «errua» tratamenduari datxezkion arlotekeriari, errespetu faltari egozten diotenak. Gauzak honela, esan dezakegu hiketarekiko aurretiziek gehienbat hirian eta edadekoen artean dituztela landatuen beren sustraiak.

Beroriketa auzunerik gehienetan ia-ia erdi galdutzat eman dezakegu: Arta, Amalloa, Barinaga, Iturreta eta Markina. Beste batzuetan 51 urtetik gorakoek baizik ez dute erregistro hau erabiltzen gehienetan: Bolibar, Ziortza, Illunzar, Meabe. Piska bat aparte geratzen zaizkigu Zenika eta Urberuaga. Auzuneotan adin desberdinetakoek erabiltzen bide dute beroriketa.

Lehen azpimarratu dugu hitanoa gehienbat gizonezkoen artean ohitzen dela eta gizonezkoek nekez hitz egin ohi dietela hika emakumezkoek; horrelaxe gertatzen da Markinan eta berdintsu —joera ahulduta badago ere— beste auzuneetan.

Salbuespen garbi bakarra Bolibar dugu: auzune honetan hika asko egiteaz gainera, ez bide dago sexo aldetiko bereizkuntzarik erregistroa erabiltzeko orduan. Hizketa-laguna zein gizonezkoa izan zein emakumezkoa izan berdin-berdin zuzentzen zaio hitzuna ohitzen duen tratamenduaz.






TAULA III - 10

	BOLIBAR			MARKINA		
	Zu / HI	(Biak)		Zu / HI	(Biak)	
<u>GALDERAK</u>	1 / 4	-		17 / 14	-	
14-15	1 / 4	-		20 / 9	-	
	- / 3	-		18 / 2	-	
20-21	- / 3	-		20 / 1	-	
	- / 4	-		17 / 17	-	
22-25	- / 3	-		24 / 9	-	
				25 / 6	-	
28-29				26 / 3		
	7 / -	-		46 / 1	-	
38-39	7 / -	-		46 / -	-	
	5 / 1	(1)		46 / 1	-	
40-41	6 / -	(1)		46 / -	-	
	6 / 1	-		34 / 8	(4)	
42-43	6 / 1	-		44 / 2	(-)	
	4 / 2	-		38 / 5	(3)	
44-45	4 / 2	-		44 / 2	-	
	- / 6	(1)		10 / 28	(8)	
46-47	- / 6	(1)		36 / 10	-	
	- / 7	-		9 / 29	(8)	
48-49	- / 7	-		37 / 8	(1)	
	4 / 2	(1)		36 / 5	(5)	
50-51	4 / 2	(1)		44 / 2	(-)	
	- / 7	-		7 / 35	(4)	
52-53	- / 7	-		36 / 10	-	
	- / 7	-		7 / 35	(4)	
54-55	- / 7	-		37 / 9	-	

5. MARKINA ETA INGURUKO AUZUNEAK


	MARKINA	AUZUNEAK.
HIKETA.	Bai / Ez	Bai / Ez
	46 / 56	39 / 14
	% 45.09 / % 54.9	% 73.5 / % 26.4
BERRIKETA.	Bai / Ez	Bai / Ez
	33 / 69	18 / 34
	% 32.3 / % 67.6	% 34.6 / % 65.3



Oro har, inguruetako auzuneetan Markinan baino askoz ere jende gehiagok erabiltzen du hikako erregistroa. Lehen esan bezala, hiritik urrundu hala erabilera goraka hasten da eta iruntzitarra, Markinako hirian galdu da gehien hiketa.


Auzuneetan batuz beste gehiengo handi batek (ia-ia hiru laurdenek) eutsi dio tratamendu honi.

Berriketa zertxobait gehitxoago erabiltzen da inguruko auzuneetan Markinako hirian baino. Beraz, honetan ere kalea hiria baino berrizaleago agertzen zaigu.



MARKINA AUZUNEAK

HIKETA



MARKINA AUZUNEAK

BERORIKETA

Markinako hirian hitanoa emakumezkoek galdu dute batipat. Beraz, oraindik ere gizonzkoetan gehienek hika egiten duten bitartean oso emakumezko gutxi erabiltzen du gaur egun erregistro hau.

Hiketa darabilen emakume bakoitzeko hiru gizon baino gehiago aurki daitezke. Honek esan nahi du, hitanoari begira ikaragarritzko aldea dagoela hirian emakumezko izatetik gizonzko izatera.

Auzuneetan hitanoaren erabilerak gora egiten du nabarmenki bai gizonzkoentzat, bai emakumezkoentzat. Azken hauetako % 57,1-ek erabiltzen dute hiketa; beraz, batzuetan beste erregistro hau gizonzko gehiagok erabiltzen badute ere, ez dago gizonzkoen markatik emakumezkoenera hainbesteko aldea. Auzuneetan hirian ez bezala, ezin esan daiteke hiketa «gizonzkoen tratamendua» denik.

Oro har gizonezkoek errazago aldatzen dute beren ohitura: beroriketa tratamendua beheraka doa, eta emakumezkoek gutxi erabiltzen badute, gizonezkoek are gutxiago.

Oraingoan ere kaleko gizonak berrizaleago azaltzen zaizkigu auzuneetakoak baino. Badirudi, beraz, kalea berrikuntza joera guztien bultzagarri dela.

Adinari begira, hiketaren erabilerak, gorago aipaturiko joerari jarraituz, bai hirian eta bai inguruetakoz auzuneetan behera egiten du 25-30 urte bitartekoekin. Oro har, beraz, adinaren aldetik joera berdintsuak nabaritzen ditugu hirian eta auzuneetan.

Beroriketari dagokionean, adinaren aldetiko joera berberak errepikatzen dira hirian eta auzuneetan. Belaunaldi gazteekin batera galduz doa tratamendu hau.


Hitanoaren erabileraren aldetik Markinako emakumezkoen kasuan ez dago gorabehera handirik belaunaldi batetik bestera. Hiriko gizonezkoekin eta auzuneetako emakumezkoekin, ostera, sekulako beherakadak eta gorakadak nabaritzen dira. Gainera, aipaturiko talde biok alderatuz gero, konturatuko gara berehala joera aski berdinak gertatzen direla: beherakada itzela harik eta 25-30 urte bitartekoekin joera horren okergunea agertu arte; berriz gorakada galanta, gehiengoa izaterainokoa, 19-24 urte bitartekoekin, eta azkenez, belaunaldi gazteenekoekin berriro beherako joera hasten da.

Auzuneetako gizonezkoek, ordea, batek ere huts egin gabe ia-ia zintzo-zintzo, ondo baino hobeto eutsi diote erregistro honi.


Beroriketa zein hirian zein auzuneetan hiltzera kondenatua dago, zaharrek ez beste gainerakoek (ez hiriko gizon-emakumeek ez auzuneetakoek) gordetzeko borondate handirik agertzen ez dutelako.

Adina	<u>HIKETA</u>		<u>BERORIKETA</u>	
	MARKINA	AUZUNEAK	MARKINÁ	AUZUNEAK
	Bai / Ez	Bai / Ez	Bai / Ez	Bai / Ez
65 +	(17) 9 / 8 %52,9	(8) 7 / 1 % 87,5	(17) 13 / 4 % 76,4	(8) 5 / 3 %62,5
51-65	(23) 14 / 9 %60,8	(12) 9 / 3 %75	(23) 10 / 13 %43,4	(11) 6 / 5 %54,5
41-50	(14) 7 / 7 % 50,	(9) 6 / 3 % 66,6	(14) 5 / 9 % 35,7	(9) 2 / 7 %22,2
31-40	(13) 3 / 10 % 23	(8) 6 / 2 %75	(13) 1 / 12 %7,6	(8) 1 / 7 % 12,5
25-30	(9) 2 / 7 % 22,2	(3) 1 / 2 % 33,3	(9) - / 9 % 0,	(3) - / 3 % -
19-24	(14) 7 / 7 %50,	(8) 6 / 2 %75,	(14) 2 / 12 %14,2	(8) 2 / 6 % 25
15-18	(12) 4 / 8 %33,3	(5) 4 / 1 %80,	(12) 2 / 10 %16,6	(5) 2 / 3 %40
	(102) 46 / 56	(53) 39 / 14	(102) 33 / 69	(52) 18 / 34

TAULA III - 12



BERORIKETA





HIKETA

TAULA III - 13

Adina	HIKETA				BERORIKETA			
	MARKINA		AUZUNEAK		MARKINA		AUZUNEAK	
	Gizonak	Andreak	Gizonak	Andreak	Gizonak	Andreak	Gizonak	Andreak
65 +	(9) 8/1 %88,8	(8) 1/7 %12,5	(4) 4/- %100	(4) 3/1 %75	(9) 7/2 %77,7	(8) 6/2 %75	(4) 2/2 %50	(4) 3/1 %75
51-65	(12) 11/1 %91,6	(11) 3/8 %27,2	(6) 4/2 %66,6	(6) 5/1 %83,3	(12) 4/8 %33,3	(11) 6/5 %54,5	(5) 3/2 %60	(6) 3/3 %50
41-50	(6) 6/- %100	(8) 1/7 %12,5	(4) 4/- %100	(5) 2/3 %40	(6) 1/5 %16,6	(8) 4/4 %50	(4) -/4 %-	(5) 2/3 %40
31-40	(6) 2/4 %33,3	(7) 1/6 %14,2	(4) 4/- %100	(4) 2/2 %50	(6) -/6 %-	(7) 1/6 %14,2	(4) 1/3 %25	(4) -/4 %-
25-30	(5) 1/4 %16,6	(4) 1/3 %25	(1) 1/- %100	(2) -/2 %-	(5) -/5 %-	(4) -/4 %-	(1) -/1 %-	(2) -/2 %-
19-24	(7) 5/2 %71,4	(7) 2/5 %28,5	(3) 3/- %100	(5) 3/2 %60	(7) 1/6 %14,2	(7) 1/6 %14,2	(3) 1/2 %33,3	(5) 1/4 %20
15-18	(6) 2/4 %33,3	(6) 2/4 %33,3	(3) 3/- %100	(2) 1/1 %50	(6) 1/5 %16,6	(6) 1/5 %16,6	(3) 1/2 %33,3	(2) 1/1 %50
	35/16	11/40	23/2	16/12	14/37	19/32	8/16	10/18

TAULA III - 14



ONDORIOAK

1. Euskaraz aditz-joko alokutiboak erregistro desberdinei daude loturik: beraz, haien erabilera derrigorrezko gerta daiteke aukeratutako tratamenduaren arauera.

2. Egitura morfologiko alokutiboak bere horretan iraun badu ere, alokutibotasunari jatorriz datzekion esanahia gaurko euskararen ahaztuxe gelditu da.

3. Oraingo aditz-joko alokutiboaren sustraian dauden forma biltzaileak lirateke gaur, esanahiari gagozkiola, inguruko hizkuntzetako erabilera alokutibo edo etikoen parekoak.

4. Euskararen eremu osoan zehar hedatzen diren erregistro desberdinen eta beraien erabileraren berri zehatzik ez daukagu oraindik ere. Agerian dago, beraz, tokian tokiko usadioaren eta erabileraren berri eman liezaguketen ikerlanen premia.

Hildo horretatik abiatu nahi izan dugu burututako ikerlantxo honen hirugarren partean: Markina aldeko erregistroen erabilera eta egoera genituen aztergai.

5. Markina aldean hika noizbait mintzatzen direnen artean joera dago nork bere buruarekin hiketa erabiltzeko. Baina euskarak duen gauzarik harrigarriena eta aldi berean bereizgarriena, bakarriketan aditz-joko alokutiboa sartzeko ohitura dugu.

6. Animaliei zuzentzerakoan, erregistro jakin bat aukeratuz gero, joera garbia dago euskaraz hika egiteko, alegia, hitanozko flexioak erabiltzeko.

7. Salbuespen batzuk gora behera, *joera* garbia dago Markina aldean emeak diren animaliekin eta emakumezkoek beren buruarekin adizkera «maskulinoak» erabiltzeko. Hau dela eta «maskulino» forma *markagabea* dela esan dezakegu.

8. Etxeko erabileraren berri emateko hiru aldagai nagusiok hartu behar dira kontutan: *adina*, *sexoa* eta *ahaidetasun-maila*.

Hurreko ahaidetasun-mailakoen artean adinak eta sexoak erabakitzen dute aukera: zaharragoak hika «egin diezaioke» gazteagoari, baina ez alderantziz.

Sexoa, bestalde, «traba» izan daiteke hitanoa erabiltzeari begira: gizonezkoa nekezago zuzenduko zaio emakumezkoari hika alderantziz baino.

Hain hurreko ez diren ahaidetasun-mailetakoekin, aipatu berri ditugun baldintzak bete direlarik ere, nekezago agertuko da konfidantzazko tratamendua.

Honi, adinaren eragozpena edo/eta sexoaren «traba» gaineratuz gero, are gutxiagotan agertuko da hiketa.

Aparte geratuko litzateke senar-emazteen kasua, zuka hitz egiteko ohitura zahar horren zergatia ez dakigularik.

9. Joera zahar eta zabalduaren kontra, Markina aldean bat baino gehiagorekin berba egiterakoan ere hiketari eusten zaio gehienetan, baldin hizketa-lagun guztiak konfidantzazkoak badira. Hau dela eta, hitanoa biren artekoa delako ustea sustraiz egia bada ere, gaurko euskaran salbuespenak ditu hango eta hemengo erabileran.

10. Familiatik kanpora garrantzi handiko hiru aldagai ditugu: *sexoa, adina eta adiskidetasuna (konfidantza)*.

Beti askoz ere jende gutxiagok (gizonezko gutxiagok esan behar) egiten dio hika emakumezkoari. Beroni, gazteagoa izan ezik eta konfidantzarik eduki ezik ez zaio inortxo ere hika zuzenduko.

Adina garrantzi handikoa da: zaharragoarekin asko kostata erabiliko dute hitanoa; hizketa-laguna zenbat eta gazteagoa izan, hainbat eta gehiagok egingo diote hika.

Adiskidetasunari gagozkiola, esan behar dugu zenbat eta konfidantza handiagoa izan, orduan eta probabilidade altuagoa izango dela hiketa agertzeko.

11. Norberak duen egoera sozio-ekonomikoak (aparteko egoera ondo markatua ez bada: abadea, frailea, medikua, ...) ez du gehiegizko eraginik hikako eta zukako erregistroen artean aukera egiterakoan.

12. Gaurko euskaldunarentzat hitanoa ez da entzulearen arreta bereganatzeko bide bat, halako konfidantzaren edo hurkotasunaren seinalea baizik.

13. Beroriketa honako pertsonekin erabili ohi da: abadea, frailea, obispoa, medikua, abogadoa, notarioa.

14. Hitanoaren erabilera atzeraka doa Markina aldean, beti gurasoen belaunalditik seme-alabenera beherakada handia nabari-

tzen da. 51 urtetik gorakoek hobeto eutsi diote erregistro honi, gazteagoek baino. Belaunaldi gazteekin galtzeko joera areagotzen da.

15. 51 urtetik beherakoentzat hiketa ez erabiltzearen arrazoiak ohitura eta ez-jakintasuna dira. Azaleko arrazoi hauen azpian, hitanoa maldan behera joatea esplikatzen duten arrazoi nagusietako bat izkututzen da: erregistroaren zailtasuna. Euskarak hiketari datzekion aditz-joko alokutibo oso bat dauka, adizkera alokutiboak eta NORIdunak desberdinak direla. Zenbaitek (ez gutxi), beraz, etsi egiten dute zailtasunaren aurrean.

16. Hiketa erabiltzen duten emakumezkoek «normaltasunez» erabiltzen dute: emakumezko bat, konfidantza izanez gero, ia-ia berdin zuzenduko zaio hika bere sexoko bati eta gizonezko bati. Gizonezkoetan, ordea, lau bider gutxiagok egingo diote hika emakumezko bati gizonezko bati baino.

17. Markinako hirian hiketa emakumezkoek galdu dute batipat: oraindik ere gizonezko gehienek hika egiten duten bitartean oso emakumezko gutxi erabiltzen du gaur egun erregistro hau. Auzuneetan ez bezala, hirian hiketa gizonezkoen tratamendua dugu. Ohitura honek, pisu handia izateaz gainera, ez dirudi atzo goizekoa denik.

18. Hiriko gizonezkoekin eta auzuneetako emakumezkoekin, hitanoak oraindik ere indartsu korritzen duen arren, sekulako gorabeherak nabaritzen dira adinaren arauera, joera galtzekoa delarik.

Gauzak honela, oraingo martxan jarraituz gero, Markinako hirian behintzat hikako erregistro honek ez du etorkizun onik izango.

19. Auzuneetako gizonezkoek ondo baino hobeto eutsi diote hitanoari.

20. Markina eta Urberuaga erdigunea direla, hitanoa gero eta gehiagok erabiltzen duteneko eremuak agertzen zaizkigu: erdigunetik zenbat eta urrunago hainbat eta bizitza zabalagoa bide dauka erregistro honek. Kalea, agian erdararekiko ukieragatik edo, galtze prozesu honen bultzagile azaltzen zaigu.

21. Hiketarekiko aurreritziak (itsusia, zatarra, errespetu falta, ...) batez ere hirian dituzte sustrai sakonak.

22. Bolibar auzunean ez bide dago sexu aldetiko bereizkuntzarik hiketa erabiltzeko orduan: hizketa-laguna zein gizonezkoa

izan zein emakumezkoa izan, berdin berdin zuzentzen zaio ohitzen duen tratamenduz.

23. Oro har, inguruetako auzuneetan Markinan baino askoz ere jende gehiagok erabiltzen du hikako erregistroa. Auzuneetan ia-ia hiru laurdenek eutsi diote tratamendu honi.

24. Auzuneetan, hirian gertatzen denaren kontra, ezin esan daiteke hiketa «gizonezkoen tratamendua» denik.

25. 25-30 urte bitartekoaren hitanoarekiko (tratamenduekiko?) «utzeria»-ren aldean, hurrengo belaunaldikoaren eskutik halako piztuera dago. Gertaera hau bitxia eta esanguratsua da: agian euskararen beraren garai desberdinetako egoerek zerikusi handia izan dute gorabehera guztiokin.

26. Beroriketaren erabileraren batz bestekoa jaitsi egiten da adinarekin batera harik eta 25-30 urte bitartekoekin zerora iritsi arte. Hortik aurrera gero eta gehiago erabiltzen hasten da.

Gorabehera hauek zentzu honetan interpretatu behar direlakoan gaude: txikitan eta gazte denboran jendea lotuago dago nagusien normari, baina behin adin batera iritsiz gero bertan behera uzten dute lehengo ohitura.

27. Beroriketa zein hirian zein auzuneetan (agian Zenika eta Urberuaga salbuespenak direla) hiltzera kondenatua dago, zaharrek ez beste guztiak gordetzeko borondate handirik agertzen ez dutelako.